76
Ekaina 2025 / 2025 Junio

Boletín de información municipal del Ayuntamiento de Berrioplano

Berriobeitiko udalaren informazio aldizkaria

Síguenos en / Hemen gaitzuzu:

http://www.berrioplano.es/

# BERRIOPLANO informa
# BERRIOBEITI ko ahotsa

Aizoáin
Aitzoain

Añézcar
Añezkar

Artica
Artika

Ballariain

Berrioplano
Berriobeiti

Berriosuso
Berriogoiti

Elcarte
Elkarte

Larragueta
Larrageta

Loza
Lotza

Oteiza
Oteitza







## Parte-hartze handia Kirol Egunean

## Un día del Deporte muy participativo

**Edita / Argitaratzailea:** Ayuntamiento de Berrioplano Berriobeitiko Udala

**Consejo de redacción/ Erredakzio Kontseilua:** Félix Remírez, Raúl Bator, Luis González, Francismo Esquíroz, Víctor Gil, Fco. Javier Vallez, Unai Calvo

**Fotografía / Argazkia:** Jon Urriza, Pablo García
**Realiza / Errealizatzailea:** Heda Comunicación
**Traducción / Itzulpena:** Heda Comunicación

**Tirada / Ale kopurua:** 3.500
**D.L. / L.G:** NA-1432-2006.
Difusión gratuita
Doako banaketa

**Colabora / Laguntzailea:**
Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

# AGENDA

MISTOA
Papera | Basogintza arduratsua babesten
Papel | Apoyando la silvicultura responsable
FSC® C021816
FSC www.fsc.org

## UDA

**Ekainak 13-15**
**BERRIOBEITIKO JAIAK**

**Ekainak 14**
**BALLARIAINGO JAIAK**

**Ekainak 20-22**
**OTEITZAKO JAIAK**

**Ekainak 20, ostirala**
**IBILBIDE OSASUNGARRIAK**
**Irteera:** Kultur Etxea (Artika)

**Ekainak 27, ostirala**
**SOLASALDIA: "YO ME LO GUISO, YO ME LO COSO".**
Berriobeitiko Liburutegi Publikoa (Artika) **Ordua:** 11:00

**Uztailak 18, ostirala**
**SOLASALDIA: "YO ME LO GUISO, YO ME LO COSO".**
Berriobeitiko Liburutegi Publikoa (Artika) **Ordua:** 11:00

**Abuztuak 01-03**
**LARRAGETAKO JAIAK**

**Abuztuak 1, ostirala**
**ANTZERKIA LARRAGETAN**
"Centrifugado". Producciones Kinser. Jende guztiarendako / 55 minutu. **Ordua:** 18:00 **Non:** pilotalekua. Sarrera doan

**Abuztuak 8, ostirala**
**SOLASALDIA: "YO ME LO GUISO, YO ME LO COSO".**
Berriobeitiko Liburutegi Publikoa (Artika) **Ordua:** 11:00

**Abuztuak 9, larunbata**
**ZINEMA ATARI ZABALEAN OTEITZAN**
"Wonka" (komedia musikala familientzat). Paul King Jende guztiarendako / 112 minutu. Sarrera doan. **Ordua:** 22:00. **Non:** plaza

**Abuztuak 23, larunbata**
**ZINEMA ATARI ZABALEAN ARTIKABERRIN**
"Robot-Dreams" (animazioa). Pablo Berger. Jende guztiarendako / 102 minutu. Sarrera doan. **Ordua:** 22:00 **Non:** plaza

**Abuztuak 29-31**
**BERRIOGOITIKO JAIAK**

**Abuztuak 29, ostirala**
**ANTZERKIA BERRIOGOITIN**
"¿El último fakir?". Zirika Zirkus. Jende guztiarendako / 60 minutu. **Ordua:** 18:30 **Non:** pilotalekua. Sarrera doan

**Irailak 05-07**
**AÑEZKAR, ELKARTE ETA ARTIKAKO JAIAK**

**Irailak 5, ostirala**
**ANTZERKIA AÑEZKARREN**
"Marietak Zirkus". Zirika Zirkus. Jende guztiarendako / 60 minutu. **Ordua:** 18:00 **Non:** pilotalekua. Sarrera doan

**Irailak 7, igandea**
**ANTZERKIA ELKARTEN**
"Ver para creer". Teatros mágicos. Jende guztiarendako / 60 minutu. **Ordua:** 17:30. **Non:** plaza. Sarrera doan

**Irailak 12-14**
**LOTZAKO JAIAK**

**Irailak 12, ostirala**
**SOLASALDIA: "YO ME LO GUISO, YO ME LO COSO".**
Berriobeitiko Liburutegi Publikoa (Artika) **Ordua:** 11:00

**Irailak 12, ostirala**
**ANTZERKIA LOTZAN**
"Bromas dulces como la miel" Producciones Kinser. Jende guztiarendako / 60 minutu **Ordua:** 18:30. **Non:** karpa Sarrera doan

**Irailak 15-19**
**TXARTEL SALMENTA ZENDEAREN EGUNERAKO**

**Irailak 27, larunbata**
**ZENDEAREN EGUNA OTEITZAN**

## VERANO

**13-15 de junio**
**FIESTAS DE BERRIOPLANO**

**14 de junio**
**FIESTAS DE BALLARIAIN**

**20-22 de junio**
**FIESTAS DE OTEIZA**

**20 de junio, viernes**
**PASEOS SALUDABLES**
**Salida:** Casa de Cultura (Artica)

**27 de junio, viernes**
**TERTULIA: "YO ME LO GUISO, YO ME LO COSO".**
Biblioteca Pública de Berrioplano (Artica). **Hora:** 11:00

**18 de julio, viernes**
**TERTULIA: "YO ME LO GUISO, YO ME LO COSO".**
Biblioteca Pública de Berrioplano (Artica). **Hora:** 11:00

**01-03 de agosto**
**FIESTAS DE LARRAGUETA**

**1 de agosto, viernes**
**TEATRO EN LARRAGUETA**
"Centrifugado". Producciones Kinser.Todos los públicos / 55 min **Hora:** 18:00 **Lugar:** frontón. Entrada gratuita

**8 de agosto, viernes**
**TERTULIA: "YO ME LO GUISO, YO ME LO COSO".**
Biblioteca Pública de Berrioplano (Artica). **Hora:** 11:00

**9 de agosto, sábado**
**CINE AL AIRE LIBRE EN OTEIZA**
"Wonka" (comedia musical-familiar). Paul King Todos los públicos / 112 minutos. Entrada gratuita **Hora:** 22:00 **Lugar:** plaza

**23 de agosto, sábado**
**CINE AL AIRE LIBRE EN NUEVO ARTICA**
"Robot-Dreams" (animación). Pablo Berger .Todos los públicos / 102 minutos. **Hora:** 22:00. **Lugar:** plaza Entrada gratuita

**29-31 de agosto**
**FIESTAS DE BERRIOSUSO**

**29 de agosto, viernes**
**TEATRO EN BERRIOSUSO**
"¿El último fakir? Zirika Zirkus. Todos los públicos / 60 min. **Hora:** 18:30. **Lugar:** frontón. Entrada gratuita

**05-07 de septiembre**
**FIESTAS DE AÑÉZAR, ELCARTE Y ARTICA**

**5 de septiembre, viernes**
**TEATRO EN AÑÉZCAR**
"Marietak Zirkus" Zirika Zirkus. Todos los públicos / 60 min. **Hora:** 18:00. **Lugar:** frontón. Entrada gratuita

**7 de septiembre, domingo**
**TEATRO EN ELCARTE**
"Ver para creer". Teatros mágicos. Todos los públicos / 60 min. **Hora:** 17:30. **Lugar:** plaza. Entrada gratuita

**12-14 de septiembre**
**FIESTAS DE LOZA**

**12 de septiembre, viernes**
**TERTULIA: "YO ME LO GUISO, YO ME LO COSO".**
Biblioteca Pública de Berrioplano (Artica). **Hora:** 11:00

**12 de septiembre, viernes**
**TEATRO EN LOZA**
"Bromas dulces como la miel" Producciones Kinser. Todos los públicos / 60 min. **Hora:** 18:30. **Lugar:** carpa Entrada gratuita

**15-19 de septiembre**
**VENTA DE TICKETS COMIDA DEL DÍA DE LA CENDEA**

**27 de septiembre, sábado**
**DÍA DE LA CENDEA. OTEIZA**

## KIROL-ARRAKASTA JUDOAN

### Garazi Tellechea, Haurren Nazionalean bosgarrena

Garazi Tellechea Berriobeitikoa da eta, joan den apirilaren 27an, Eskolarteko Judo Joko Nazionaletan lehiatu zen Huescako udal kiroldegian, 44 kg-ko kategorian. Finalerdietan ezin izan zuen Asturiasko judoka gainditu, eta hain zuzen, hura atera zen txapeldun. Gero, EAEko judokaren kontra borrokatu zen brontzea eskuratzeko eta, borroka-saioa oso parekatua izan arren, azkenean galdu egin zuen. Garazik denboraldi bikaina egin du. Izan ere, nabarmentzekoa da berriz ere bosgarren izan dela Villa de Montijo Superkopan eta brontzezko domina bat eskuratu duela Santanderko Superkopan.



## ÉXITO DEPORTIVO EN JUDO

### Garazi Tellechea, quinta en el Nacional Infantil

La vecina de Berrioplano Garazi Tellechea compitió en los Juegos Escolares Nacionales de Judo, en la categoría de 44 kg, que se celebraron el pasado 27 de abril en el Polideportivo Municipal de Huesca. En las semifinales no pudo con la judoka asturiana, que finalmente fue campeona. Peleó por el bronce con la judoka vasca, un combate muy igualado que finalmente perdió. Garazi cierra una excelente temporada. En su palmarés destaca otra quinta posición en la Supercopa Villa de Montijo y una medalla de bronce en la Supercopa de Santander.

## PROMOCIÓN DEL USO DEL EUSKERA / EUSKARAREN ERABILERAREN SUSTAPENA

### La Cendea se unió al Euskaraldia

La Cendea de Berrioplano se ha sumado a la cuarta edición de Euskaraldia, la dinámica social que busca que personas que saben y/o entienden euskera se animen a comunicarse en esta lengua. Este año 155 personas del municipio de Berrioplano se han inscrito a Euskaraldia y, en cuanto a los roles elegidos, 118 personas se han identificado con la chapa Ahobizi (se compromete a utilizar el euskera con todas aquellas personas que le entiendan), y 37 con la chapa de Belarriprest (se compromete solicitar a quienes sepan euskera que le hablen en este idioma).




### Zendea, Euskaraldiarekin bat

Berriobeiti Zendeak bat egin du Euskaraldiaren laugarren edizioarekin, hau da, euskaraz dakiten edota ulertzen duten pertsonak euskaraz mintzatzera animatu nahi dituen ariketa sozialarekin. Aurten, gure udalerriko 155 lagunek eman dute izena Euskaraldian, eta aukeratutako rolei dagokienez, 118k Ahobizi txapa eraman dute (euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiteko konpromisoa hartu dute), eta 37k, berriz, Belarriprest txapa (euskaraz dakitenek niri euskaraz hitz egitea nahi dut, eta horixe eskatzen diet).

# SERVICIOS ZERBITZUAK

## La trabajadora familiar, un referente de salud y cuidado

Uno de los programas que ofrece la Mancomunidad de Servicios Sociales de Ansoáin, Berriozar, Berrioplano, Juslapeña e Iza es el de "Dependencia y autonomía", un servicio que cuenta con la figura de la trabajadora familiar, una persona que ofrece acompañamiento y apoyo tanto a nivel social como emocional. Se trata de un referente de salud y cuidado, porque no solo asiste a la persona dependiente, sino que la atiende en su domicilio y lleva a cabo las directrices fijadas por la trabajadora social, que es la encargada de valorar la dependencia de la persona usuaria.
Desde Servicios Sociales destacan la importancia de esta figura, cada vez más necesaria ante la fuerte demanda que se está registrando en los últimos años debido al envejecimiento de la población.

**CITA PREVIA en el teléfono: 948 30 00 07** http://www.manserso.org/inicio/

## Familia langilea, osasunaren eta zaintzaren erreferentea

Antsoaingo, Berriozarko, Berriobeitiko, Txulapaingo eta Itzako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eskaintzen duen programetako bat "Mendekotasuna eta autonomia" da. Zerbitzu horrek familia langile bat dauka, hau da, gizarte mailan zein emozionalean laguntza eta babesa eskaintzen dituen pertsona. Osasunaren eta zaintzaren erreferente bat da, mendekotasuna duen pertsona artatzeaz gain, haren etxean arreta ematen diolako eta gizarte langileak ezarritako jarraibideak betetzen dituelako, hura baita erabiltzailearen mendekotasuna baloratzearen arduraduna.
Gizarte Zerbitzuek figura horren garrantzia nabarmendu dute, gero eta beharrezkoagoa baita azken urteetan biztanleriaren zahartzearen ondorioz dagoen eskari handiaren aurrean.

**HITZORDUA ESKATZEKO: 948 30 00 07 telefonoan** http://www.manserso.org/inicio/

## NOVEDADES BIBLIOTECA
## LIBURUTEGIKO NOBEDADEAK




- LAFORET, Carmen
  **Correspondencia inédita: 1958-1987**
  Renacimiento, 2023
- ALEIXANDRE, Marilar
  **Emakume gaiztoak**
  Alberdania, 2023
- PÉREZ-REVERTE, Arturo
  **La isla de la mujer dormida**
  Erein, 2019
- IRASIZABAL IZAGIRRE, Iñaki
  **Otsoa etorriko da**
  Elkar 2023
- JARQUE, Marta
  **Daniel sigue las pistas**
  Combel editorial, 2024
- SERRANO, Lucía
  **¡Fuera etiquetas!**
  Beascoa, 2024
- SERRANO, Lucía
  **¡Fuera etiquetas!**
  Beascoa, 2024
- SIERRA I FABRA, Jordi
  **El asesinato de la profesora de lengua**
  Anaya, 2007
- OLAIZOLA GABIRONDO, Katti
  **Nork hil du trikua?**
  Sua, 2023

# UDALA BERRIEMAILE
# EL AYUNTAMIENTO INFORMA

## Herritarrentzako arreta-zerbitzua

Berriobeitiko biztanleriak herritarrentzako arreta-zerbitzu bat du eskura bi tokiotan: Udaletxean bertan (Udaletxe plaza, 1), astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara; eta Artigune II-n (Leonor Akitaniakoa kalea, 26, Artika), astearte eta asteazkenetan, 9:00etatik 14:00etara. Gainera, 012 (edo 948 012 012) telefono-zenbakiaren bidez zerbitzua jasotzeko aukera ere badago. Ordutegia astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 18:00etara bitartekoa da. Uztailean eta abuztuaren 1etik 15era, berriz, 8:00etatik 15:00etara.

### Zerbitzuak

**KUDEAKETA:** errolda eta katastro ziurtagiriak, bestelako ziurtagiriak, ordainagirien ordainketa, banku helbideratzea, etab.
**IZENA EMATEA ETA HITZORDUAK:** udal ikastaro eta jardueretan izena ematea eta udal teknikari eta zerbitzuekin hitzorduak ematea.
**INFORMAZIOA:** oinarrizko hornidura enpresekin (telefonoa, gasa, argindarra eta ura) egin beharreko izapideei buruzko udal informazioa eta udalez kanpokoa, Nafarroako Gobernuarekin egin beharreko izapideak, osasun, hezkuntza, garraio eta aisialdiko zentro eta zerbitzuak, elkarteak eta abar.
**ABISUAK, KEXAK ETA IRADOKIZUNAK:** udal zerbitzu edo jarduketei buruzko kexak aurkeztu, iradokizun bat egin edo abisu bat eman daiteke (hiri-altzariak, argiteria...).



## Servicio de atención ciudadana

La población de Berrioplano dispone de un servicio de atención ciudadana presencial en dos puntos: el propio Ayuntamiento (Plaza del Ayuntamiento, 1), en horario de lunes a viernes, de 9:00 a 14:00; y en Artigune II (calle Leonor de Aquitania, 26, Artica) los martes y miércoles de 9:00 a 14:00. Además, existe la posibilidad de recibir el servicio a través del 012 ( 948 012 012). El horario es de lunes a viernes de 8:00 a 18:00. En julio y del 1 al 15 de agosto, de 8:00 a 15:00.

### Servicios

**GESTIÓN:** solicitud de volantes/certificados de padrón y catastro, otro tipo de certificados, pago de recibos, domiciliación bancaria, etc.
**INSCRIPCIÓN Y CITAS PREVIAS:** inscripción de cursos y actividades municipales y citas con técnicos y servicios municipales.
**INFORMACIÓN:** información municipal y no municipal de trámites con empresas de suministros básicos (teléfono, gas, electricidad y agua), trámites con el Gobierno de Navarra, centros y servicios sanitarios, educativos, de transporte y de ocio, asociaciones, etc.
**AVISOS, QUEJAS Y SUGERENCIAS:** se puede presentar quejas sobre los servicios o actuaciones municipales, hacer una sugerencia o dar un aviso (mobiliario urbano, alumbrado...).

# OSOKO BILKUREN LABURPENAK
# RESUMEN DE PLENOS

Osoko bilkuretako aktak eta saioen grabazioak www.berrioplano.es webean daude eskura

Las actas de los plenos y las grabaciones de las sesiones están disponibles en www.berrioplano.es

## OSOKO BILKURA ARRUNTA (2025-03-04)

**2025eko % 0,2 dirulaguntza deialdiaren onespena, irabazi asmorik gabeko partaidetza sozialeko erakundeentzat, prebentzio, sustapen eta lankidetza sozialeko proiektuak garatze aldera.** Zinegotzi guztiak bertan zirela, osoko bilkurak puntua aho batez onetsi zuen.

**Aurri-egoeran dauden etxebizitzak modu subsidiarioan eraisteko 6/2025 aurrekontu aldaketa onartzea.** Udalbatzak 6/2025 aurrekontu aldaketa onetsi zuen, 11 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Plazaola, UPN, PP, Vecinos por Artica eta PSN) eta 2 kontra (AAB). Horrenbestez, 120.000 euroko partida bat sartu da, aurri-egoeran dauden etxebizitzak modu subsidiarioan eraisteko.

**Ingelesezko hiri kanpaldiak egiteko 7/2025 aurrekontu aldaketa onartzea.** Udalbatzak 7/2025 aurrekontu aldaketa onetsi zuen, 11 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Plazaola, UPN, PP, Vecinos por Artica eta PSN) eta 2 kontra (AAB). Horrenbestez, 25.000 euroko partida bat sartu da, ingelesezko hiri kanpaldiak egiteko.

**Kontsultategi berriaren proiektua eta obren lizitazio-agiria, onarturik.** Udalbatzak kontsultategi berriaren proiektua eta obren lizitazio-agiria onetsi zituen, 7 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Plazaola, Vecinos por Artica eta PSN) eta 6 kontra (UPN, PP eta AAB).

**Martxoaren 8ko adierazpen instituzionala, Emakumearen Nazioarteko Eguna.** Udalbatzak Martxoaren 8ko Adierazpen instituzionala onetsi zuen, 11 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Plazaola, UPN, PP, Vecinos por Artica eta PSN) eta 2 abstentzio (AAB). Ondorioz, Udalak hainbat konpromiso hartu ditu: erantzunkidetasuna sustatzera bideratutako sentsibilizazio programak eta kanpainak diseinatzea eta ezartzea, gizonak eta emakumeak berdintasunez inplikatuz eta intersekzionalitatea kontuan hartuz kolektibo kalteberen behar zehatzei erantzuteko; behar diren neurriak hartzea, gure erakundeetan generoko soldata arrakalaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, lan hitzarmen eta akordioek emakumeen lanaren balorazio justua islatzen dutela bermatuta, bereziki sektore feminizatuetan; ordaindu gabeko lana bizitzaren jasangarritasunerako ardatz nagusi gisa aitortzen eta baloratzen duten tokiko politikak ezartzea, pertsona guztientzako zerbitzu publiko unibertsalak bermatuta; gure entitateetako langile guztiei prestakuntza etengabea eskaintzea genero berdintasunean, politika publikoak eta erabaki administratiboak genero ikuspegiarekin aplikatzen direla bermatuta; eta alor honetan mugimendu feministaren ekarpenak eta lana aintzat hartzea, eta antolatzen dituzten ekitaldi eta elkarretaratzeetan parte-hartzera gonbidatzea.

## OSOKO BILKURA ARRUNTA (2025-04-01)

**Garapen Lankidetzarako Toki Funtsari atxikitzea.** Mikel Barrena (EH Bildu) izan ezik zinegotzi guztiak bertan zirela, Udalbatzak Garapen Lankidetzarako Toki Funtsari 33.000 euroan atxikitzea onetsi zuen, bigarren bozketan onetsi ere, alkatearen kalitatezko botoarekin. Izan ere, lehenengo zein bigarren bozketan, berdinketa gertatu zen, hau da, 6 boto alde (EH Bildu, Plazaola eta Vecinos por Artica) eta 6 kontra (UPN, PP eta AAB).

**Euskara erabili eta sustatzeko ordenantzaren aldaketaren behin betiko onarpena.** Aurkeztutako alegazioa atzera bota ondoren, Udalbatzak euskararen erabilera eta sustapenerako ordenantzaren aldaketa onetsi zuen, 6 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Plazaola, Vecinos por Artica eta PSN), 4 kontra (UPN eta PP) eta 2 abstentzio (AAB).

## OSOKO BILKURA ARRUNTA (2025-05-06)

**Artikako Etxebakar sektoreko R-9 lurzatiaren esleipena, babes ofizialeko etxebizitzen sustapenerako.** Zinegotzi guztiak bertan zirela, Etxebakar sektoreko R-9 lurzatia esleitu zion osoko bilkurak Plazaetxea Gestión Integral S.L. enpresari 3.148.074,17 euroan, saltzera eta alokatzera bideratuko diren babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko. 11 boto izan ziren alde (EH Bildu, Plazaola, UPN, PP, Vecinos por Artica eta PSN) eta 2 abstentzio (AAB).

**Kontzejuentzako dirulaguntzen deialdia, 2025ean baso ondarea mantendu eta ustiatzeko, eta ingurumena zaintzeko.** Udalbatzak aho batez onartu zuen kontzejuentzako dirulaguntzen deialdia, 2025ean baso ondarea mantentzeko eta ustiatzeko, eta ingurumena zaintzeko.

**Kontzejuentzako dirulaguntzen deialdia, kontzejuen jabetzako bideak hobetzeko, konpontzeko edo lehengoratzeko.** Udalbatzak kontzejuentzako dirulaguntzen deialdia onetsi zuen, kontzejuen jabetzako bideak hobetzeko, konpontzeko edo lehengoratzeko, 7 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Plazaola, Vecinos por Artica eta PSN) eta 6 abstentzio (UPN, PP eta AAB).

## OSOKO BILKURA ARRUNTA (2025eko EKAINAREN 3a)

**Kultur, kirol eta gazte arloko dirulaguntza onetsi da.** Zinegotzi guztiak bertan zirela, dirulaguntza Berriogoitiko Apezetxea gastronomia, kultur eta kirol elkarteari ematea onetsi zuen osoko bilkurak, "Sustraiak – Herria egiten" proiektua gauzatzeko. 7 boto izan ziren alde (EH Bildu, Plazaola, Vecinos por Artica eta PSN) eta 6 abstentzio (UPN, PP eta AAB).

**Berriobeitiko kontsultategi berria Berriogoitin eraikitzeko kontratua esleitu da.** 7 boto izan ziren esleipenaren alde (EH Bildu, Plazaola, Vecinos por Artica eta PSN), 4 kontra (UPN eta PP) eta 2 abstentzio (AAB). Horrenbestez, Berriobeitiko kontsultategi berria Construcciones José Miguel Ibáñez enpresak eginen du 1.996.547,48 euroan.

**Aldaketa, zenbait jarduera eta obra abian jartzeko aldez aurreko komunikazioa eta erantzunkizunpeko aitorpena egiteko prozedura arautzen duen ordenantzan.** Osoko bilkurak hasiera batez onetsi zuen aldaketa, 11 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Plazaola, UPN, PP, Vecinos por Artica eta PSN) eta 2 abstentzio (AAB). Horrenbestez, aldatu egin da zenbait jarduera eta obra abian jartzeko aldez aurreko komunikazioa eta erantzunkizunpeko aitorpena egiteko prozedura arautzen duen ordenantza. Zehazki, ezabatu da obra gauzatzeko aurrekontuak 20.000 eurotik beherakoa izan behar zuelako aipamena. Orain, berriz, obra txikiek baizik ez dute lekua izanen, haien zenbatekoa edozein izanik ere.

Servicio de Atención Ciudadana. Ayuntamiento: 9:00 - 14:00 / 948 30 31 29 / de lunes a viernes. Artigune II: Leonor de Aquitania, 26 (Artica). Martes y miércoles

Herritarrendako Arreta Zerbitzua (9:00 - 14:00) Udala: 948 303129. Astelehenetik ostiralera. Artigune II: Leonor Akitaniakoa, 26 (Artika). Asteartea eta asteazkena.

## PLENO ORDINARIO (4-03-2025)

**Aprobación de la convocatoria de subvenciones para entidades de participación social sin ánimo de lucro que desarrollan proyectos de prevención, promoción y cooperación social del 0,2% de 2025.** En una sesión a la que asistió toda la Corporación municipal, el Pleno aprobó por unanimidad este punto.

**Aprobación de la modificación presupuestaria 6/2025 para ejecutar subsidiariamente la demolición de viviendas en ruina.** La Corporación municipal aprobó por 11 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, UPN, PP, Vecinos por Artica y PSN y 2 en contra de AAB la modificación presupuestaria 6/2025 para incluir una partida de 120.000 euros para ejecutar subsidiariamente la demolición de viviendas en ruina.

**Aprobación de la modificación presupuestaria 7/2025 para la realización de campamentos urbanos en inglés.** El Pleno aprobó por 11 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, UPN, PP, Vecinos por Artica y PSN y 2 en contra de AAB la modificación presupuestaria 7/2025 para incluir una partida de 25.000 euros para la realización de campamentos urbanos en inglés.

**Aprobación del proyecto del nuevo consultorio y el pliego de licitación de obras.** La Corporación municipal aprobó por 7 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, Vecinos por Artica y PSN y 6 en contra de UPN, PP y AAB el proyecto del nuevo consultorio y el pliego de licitación de obras.

**Declaración institucional del 8 de marzo, Día Internacional de la Mujer.** El Pleno aprobó por 11 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, UPN, PP, Vecinos por Artica y PSN y 2 abstenciones de AAB la Declaración institucional del 8 de marzo por la que el Ayuntamiento se compromete a diseñar e implementar programas y campañas de sensibilización dirigidas a promover la corresponsabilidad, involucrando a hombres y mujeres por igual, teniendo en cuenta la interseccionalidad para atender las necesidades específicas de colectivos más vulnerables; desarrollar medidas de seguimiento y evaluación de la brecha salarial de género en nuestras entidades, garantizando que los convenios y acuerdos laborales reflejen una valoración justa del trabajo de las mujeres, especialmente en sectores feminizados; implementar políticas locales que reconozcan y valoren el trabajo no remunerado como eje central para la sostenibilidad de la vida garantizando servicios públicos universales para todas las personas; ofrecer formación continua en igualdad de género a todo el personal de nuestras entidades, asegurando que las políticas públicas y las decisiones administrativas se apliquen con perspectiva de género; y reconocer las aportaciones y el trabajo del movimiento feminista en este ámbito e invitar a la participación en los diferentes actos y concentraciones que organicen.

## PLENO ORDINARIO (1-04-2025)

**Adhesión al Fondo Local de Cooperación al Desarrollo.** En una sesión a la que asistió toda la Corporación excepto Mikel Barrena (EH Bildu), el Pleno aprobó la Adhesión al Fondo Local de Cooperación al Desarrollo por importe de 33.000 euros con el voto de calidad del alcalde en segunda votación. Tanto en la primera como en la segunda votación se contabilizaron 6 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, Vecinos por Artica y PSN y 6 en contra de UPN, PP y AAB.

**Aprobación definitiva de la modificación de la ordenanza de uso y fomento del euskera.** Tras desestimarse la alegación presentada, la Corporación municipal aprobó por 6 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, Vecinos por Artica y PSN, 4 en contra de UPN y PP y 2 abstenciones de AAB la modificación de la ordenanza de uso y fomento del euskera.

## PLENO ORDINARIO (6-05-2025)

**Adjudicación de la parcela R-9 del sector Etxebakar de Artica para la promoción de viviendas de VPO.** En una sesión plenaria a la que asistió toda la Corporación municipal, el Pleno aprobó por 11 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, UPN, PP, Vecinos por Artica y PSN y 2 abstenciones de AAB adjudicar a Plazaetxea Gestión Integral, S.L. la parcela R-9 del sector Etxebakar para la promoción de viviendas de VPO con destino venta y alquiler por un importe de 3.148.074, 17 euros.

**Convocatoria de subvenciones a concejos con fines de mantenimiento y explotación del patrimonio forestal y conservación medioambiental de 2025.** La Corporación municipal aprobó por unanimidad la convocatoria de subvenciones a concejos con fines de mantenimiento y explotación del patrimonio forestal y conservación medioambiental de 2025.

**Convocatoria de subvenciones para concejos con fines de mejora, arreglos o recuperación de caminos de propiedad concejil.** El Pleno aprobó por 7 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, Vecinos por Artica y PSN, y 6 abstenciones de UPN, PP y AAB la convocatoria de subvenciones para concejos con fines de mejora, arreglos o recuperación de caminos de propiedad concejil.

## PLENO ORDINARIO (3-06-2025)

**Aprobación de subvenciones para fines culturales, deportivos y de juventud.** En una sesión a la que asistió toda la Corporación, el Pleno aprobó inicialmente conceder la subvención por 7 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, Vecinos por Artica y PSN y 6 abstenciones de UPN, PP y AAB a la Asociación gastronómica, cultural y deportiva Apezetxea de Berriosuso para el proyecto “Raíces – Haciendo pueblo / Sustraiak – Herria egiten”.

**Adjudicación del contrato para edificar el nuevo consultorio de Berrioplano en Berriosuso.** El pleno adjudicó por 7 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, Vecinos por Artica y PSN , 4 en contra e UPN y PP y 2 abstenciones AAB la edificación del nuevo consultorio de Berrioplano a la empresa Construcciones José Miguel Ibáñez por un importe de 1.996.547,48 euros.

**Modificación Ordenanza reguladora del procedimiento de declaración responsable y comunicación previa para la puesta en marcha de ciertas actividades y obras.** El Pleno aprobó inicialmente por 11 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, UPN, PP, Vecinos por Artica y PSN y 2 abstenciones de AAB la modificación de la Ordenanza reguladora del procedimiento de declaración responsable y comunicación previa para la puesta en marcha de ciertas actividades y obras. Se ha eliminado la referencia que se hacía a que el presupuesto de ejecución material debía ser inferior a 20.000 euros y a partir de este cambio únicamente tendrán cabida las obras menores, con independencia de su importe.

# INFORMACIÓN MUNICIPAL
# UDAL INFORMAZIOA

RESIDUOS / HONDAKINAK

## Instalados los nuevos contenedores, que funcionan con apertura electrónica

El pasado 4 de junio la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona comenzó a instalar los nuevos contenedores de orgánica y resto con apertura electrónica en el municipio de Berrioplano. El objetivo principal del nuevo sistema es aumentar la recogida separada de materia orgánica, al tiempo que se disminuye la cantidad depositada en la fracción resto. Por eso, los contenedores de tapa marrón y tapa gris se abrirán a partir de ahora mediante una tarjeta electrónica o una app móvil.

Durante el mes de mayo se ha llevado a cabo una campaña de información entre la ciudadanía para anunciar las novedades, hacer entrega de las nuevas tarjetas y explicar cómo usar la aplicación para abrir los contenedores.







## Irekiera elektronikoa duten edukiontzi berriak jarri dira

Joan den ekainaren 4an, irekiera elektronikoa duten edukiontzi berriak jartzen hasi zen Iruñerriko Mankomunitatea Berriobeitiko udalerrian gai organikoak eta gainerakoa edo errefusa biltzeko. Sistema berriaren helburu nagusia da materia organikoaren bilketa bereizia handitzea eta, aldi berean, gainerakoa edo errefusa murriztea. Horregatik, tapa marroia eta grisa duten edukiontziak txartel elektroniko baten edo mugikorreko aplikazio baten bidez irekiko dira hemendik aurrera.

Maiatzean zehar, informazio-kanpaina egin da herritarren artean, berrikuntzak jakinarazteko, txartel berriak banatzeko eta edukiontziak irekitzeko aplikazioa nola erabili azaltzeko.

MEJORAS / HOBEKUNTZAK



## Arreglos de aceras y pasos de peatones

Durante los meses de abril y mayo se han realizado trabajos de mejoras de aceras y pasos de peatones en el pueblo de Artica. La empresa encargada de llevar a cabo las obras ha sido Construcciones Beraza.

## Espaloi eta oinezkoen pasabideen konponketak

Apiril eta maiatzean, espaloiak eta oinezkoen pasabideak hobetzeko lanak egin dira Artikan. Obrak Construcciones Beraza enpresak egin ditu.

EKIPAMENDUAK / DOTACIONES

## Mediku-kontsultategiko obra esleitu da

Construcciones José Miguel Ibáñez S.L.U. enpresak Berriobeitiko mediku-kontsultategi berria eginen du 1.996.547,48 euroan, BEZa barne. Proiektua 14 hilabetean gauzatu beharko du eta, aurreikuspenen arabera, obrak uda ondoren hasiko dira. Eraikuntza Purifikazio kalean egonen da, Plazaola parkeko lurzati batean, Berriobeitiko haur-eskolaren parean. Bi solairu izanen ditu: behe-solairua eta erdisotoa. Kontsulta guztiak behe-solairuan kokatuko dira, harrera-lekuaren ondoan, bai eta komunak ere. Erdisotoan, berriz, besteak beste, aldagelak, langileendako gelak, komun bat eta osasun-biltegi bat egonen dira, bai eta kanpoko parketik sarbidea izanen duen erabilera anitzeko gela bat ere. Nafarroako Gobernuak 200.000 euro emanen ditu 2025ean proiektua finanatzatzeko.



## Adjudicada la obra del consultorio médico

Construcciones José Miguel Ibáñez S.L.U. ha sido la empresa adjudicataria de las obras de construcción del nuevo consultorio médico de Berrioplano por un importe de 1.996.547,48 euros IVA incluido. El proyecto tiene un plazo de ejecución de 14 meses desde el inicio de la obra, previsto para después del verano.

El edificio se ubicará en la calle Nuestra Señora de la Purificación, en una parcela situada en el parque Plazaola, frente a la escuela infantil de Berriosuso. Dispondrá de dos plantas: baja y semisótano. Todas las consultas se ubicarán en la planta baja, junto a la admisión. En esta planta también habrá aseo. En el semisótano se situarán los vestuarios, salas para el personal, un aseo y almacén sanitario, entre otras instalaciones, y una sala polivalente con acceso desde el parque exterior. El Presupuesto del Gobierno de Navarra para para financiar este proyecto en 2025 asciende a 200.000 euros.

MERCADO INMOBILIARIO / HIGIEZINEN MERKATUA

# El Ayuntamiento adjudica la parcela de Etxebakar en la que se construirán 108 viviendas de protección

**Adjudicada a Plazaetxea Gestión Integral, S.L., mediante concurso público, la venta de la parcela R9 del sector de Etxebakar para la promoción y construcción de 84 viviendas de protección oficial (VPO) para compra y 24 viviendas de alquiler joven.**

El edificio constará de 4 portales, con dos plantas de sótano destinadas a garajes y trasteros, una planta baja para un local de uso dotacional y seis alturas con viviendas de 2, 3 y 4 dormitorios, todas ellas con terraza. El diseño del edificio y los criterios bioclimáticos aplicados garantizarán una calificación energética A.
Las 24 viviendas de alquiler joven se ubicarán en un único portal y contarán con 2 dormitorios y 2 baños. Las 84 viviendas para venta se distribuirán en los tres portales restantes e incluirán 2 viviendas para Familias Numerosas, 3 viviendas de 3 dormitorios adaptadas, 2 viviendas de 2 dormitorios y 77 viviendas de 3 dormitorios, todas ellas con 2 baños.
En una primera fase, se adjudicarán a personas empadronadas en Berrioplano que cumplan los requisitos para optar a una VPO (estar inscrito en el Censo de Vivienda con anterioridad a la publicación de esta promoción; estar empadronado en el Ayuntamiento de Berrioplano; no ser titular del dominio o de un derecho real de uso o disfrute sobre otra vivienda, en cualquier ubicación; y acreditar los ingresos mínimos establecidos por ley en la última Declaración de la Renta). Si no se adjudican todas las viviendas a residentes de Berrioplano, podrán optar a ellas personas empadronadas en otras localidades de Navarra.
Las 24 viviendas de alquiler se adjudicarán una vez finalizada la construcción y estarán destinadas a jóvenes con empadronamiento en el municipio. Para poder optar a ellas también será necesaria la inscripción previa en el censo de solicitantes de vivienda protegida.



**El Ayuntamiento busca dar respuesta al problema actual de la vivienda y atender las necesidades de la población del municipio, especialmente las de los jóvenes.**

# Udalak Etxebakar lurzatia esleitu du, bertan 108 etxebizitza babestu eraikitzeko

**Etxebakar sektoreko R9 lurzatiaren salmenta Plazaetxea Gestión Integral, S.L. enpresari esleitu zaio lehiaketa publiko bidez, babes ofizialeko 108 etxebizitza sustatu eta eraikitzeko; haietariko 84, salmentarako, eta 24, berriz, gazte alokairurako.**

**Udalaren helburua da egungo etxebizitza arazoari ekitea eta udalerriko biztanleen beharrei erantzutea, batez ere gazteenei.**

Eraikinak 4 atari izanen ditu, eta haietako bakoitzak garaje eta trastelekuetarako bi soto, ekipamenduetarako lokal bat behesolairuan, eta sei solairu etxebizitzetarako, 2, 3 edo 4 logelakoak eta terraza banarekin. Eraikinaren diseinuak eta aplikatuko zaizkion irizpide bioklimatikoek A kalifikazio energetikoa bermatuko dute.
Gazte alokairuko 24 etxebizitzak atari bakar batean kokatuko dira, eta 2 logela eta 2 komun izanen dituzte. Salmentarako 84 etxebizitzak, berriz, gainerako hiru atarietan banatuko dira: 2, zehazki, familia ugariendako gordeko dira; 3, berriz, 3 logelako etxebizitza moldatuak izanen dira; 2 etxebizitzak bi logela izanen dituzte, eta 77k, berriz, hiru, guztiak ere 2 komunez osatuak.
Lehenengo fasean, babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten Berriobeitiko erroldatuei esleituko zaizkie. Honatx baldintzak: promozio hau argitaratu aurretik, etxebizitza-erroldan izena emanda egotea; Berriobeitiko Udalean erroldatua egotea; beste etxebizitza baten jabariaren edo hura erabili eta gozatzeko eskubide erreal baten titularra ez izatea, edozein tokitan bada ere; eta azken Errenta Aitorpenean legez ezarritako gutxieneko dirusarrerak egiaztatzea. Etxebizitza guztiak Berriobeitiko bizilagunei esleitzen ez bazaizkie, Nafarroako beste herri batzuetan erroldatutako pertsonek izanen dute aukera.
Alokairuan dauden 24 etxebizitzak, berriz, eraikuntza amaitutakoan esleituko dira, eta udalerrian erroldatuta dauden gazteentzat izanen dira. Eskuratu ahal izateko, etxebizitza babestuaren eskatzaileen erroldan eman beharko da izena aldez aurretik.

# INFORMACIÓN MUNICIPAL
# UDAL INFORMAZIOA

## BERRIKUNTZA / REFORMA



### Berriogoitiko Jauregia berritzeko parte-hartze prozesua

### Proceso participativo para la reforma del Palacio de Berriosuso

Udalak parte-hartze prozesu bat egin du, herritarrek Berriogoitiko Jauregiaren erabileraren inguruan duten iritzia jasotzeko, berrikuntza egiten hasi aurretik. Izan ere, apirilaren 8tik maiatzaren 29ra, hainbat tailer antolatu ziren Berriogoitiko kontzeju etxean, espazioaren analisi bat egiteko, erabilerak proposatzeko, proposamenak diseinatzeko eta berrikuntzaren aurreproiektuaren zirriborroari hobekuntzak iradokitzeko. Halaber, apirilaren 29tik maiatzaren 9ra, inkesta bat egin zen online udalaren web orrian. Udalak laster emanen ditu ezagutzera parte-hartze prozesuaren ondorio eta proposamenak.

El Ayuntamiento ha realizado un proceso participativo para consultar a la ciudadanía sobre el uso del Palacio de Berriosuso antes de llevar a cabo su reforma. Del 8 de abril al 29 de mayo se organizaron talleres en la casa del concejo de Berriosuso para realizar un análisis del espacio, proponer usos, coodiseñar propuestas y sugerir mejoras al borrador del anteproyecto de reforma. Asimismo, se realizó una encuesta on line del 29 de abril al 9 de mayo en la página web municipal. El Ayuntamiento dará a conocer próximamente las conclusiones y propuestas del proceso participativo.

## VOLUNTARIADO / BOLUNTARIOTZA



### Auzolan, cuando plantar se convierte en diversión

### Auzolana. Landaketa lana eta jolasa uztarturik

El auzolan del 22 de marzo organizado por el servicio de jardinería del Ayuntamiento y la asociación Lur Bizi para plantar arbolado en Nuevo Artica tuvo muy buena acogida. En total, participaron 30 personas, que se pusieron a la tarea en los alcorques de la plazuela del bar Kizkurra. Los más pequeños pudieron dar sus primeros pasos en jardinería y, al mismo tiempo, disfrutar de la actividad. En definitiva, un día de ocio comunitario y de compromiso con la sostenibilidad del entorno.

Auzolana Udaleko lorezaintza zerbitzuak eta Lur Bizia elkarteak antolatu zuten Artikaberrin, martxoaren 22an, zuhaitzak landatzeko, eta oso harrera ona izan zuen. Guztira, 30 lagun aritu baitziren Kizkurra tabernaren plazatxoko txorkoetan lanean. Haurrek lehenengo pausoak eman ahal izan zituzten lorezaintzan, ederki gozatuta. Azken batean, egun ederra, aisialdia elkarrekin gozatzeko eta inguruneko jasangarritasunaren alde egiteko.

## EKIPAMENDUAK / DOTACIONES

### Proiektuak Berriobeitiko liburutegi berrirako, Artikaberrin

7 enpresa aurkeztu dira Berriobeitiko liburutegi berrirako proiektua idazteko lizitazioan. Liburutegia Artikaberriko Mogotes sektorean ezarriko da, Buztintxuriko auzoarekin muga egiten duen lursail batean. Behin proposamenak aztertutakoan, esleipena eginen da. Udalak laster emanen du horren berri.

### Proyectos para la nueva biblioteca pública de Berrioplano en Nuevo Artica

7 empresas se han presentado a la licitación de redacción de proyecto para la nueva biblioteca pública de Berrioplano, que se ubicará en el “Sector Mogotes” de Nuevo Artica, un terreno que linda con el barrio de Buztintxuri. Tras el estudio de las propuestas, se procederá a la adjudicación, que el Ayuntamiento dará a conocer próximamente.

## SENTSIBILIZAZIOA / SENSIBILIZACIÓN

### Hemen da berriro zuhaitz bat babespean hartzeko kanpaina

Udalak berriz ere abiarazi du uda honetan zuhaitz bat hiri-ingurunean babesteko kanpaina. Oso erraza da. Izan ere, interesa dutenek zuhaitz bat aukeratu behar dute (nahi dutena). Udalak, gero, kartel bat emanen die zuhaitzean jartzeko, zuhaitzari eman nahi zaion izena idazte aldera, eta “beren zuhaitza” zaintzeko konpromisoa hartu beharko dute (astero bi litro ur bota). Zuhaitza ureztatuz ohartuko baikara erabiltzen dugun urak beste aprobetxamendu bat izan dezakeela alferrik bota aurretik. Kanpainari buruzko informazio guztia emateko, bilera baterako deialdia eginen da. Xehetasun guztiak ohiko komunikazio kanalen bidez jakinaraziko dira (udal web orria eta sare sozialak).



### Regresa la campaña para apadrinar un árbol

El Ayuntamiento vuelve a lanzar este verano la campaña para apadrinar un árbol en el entorno urbano. Las personas interesadas tan sólo tendrán que elegir el árbol que quieren apadrinar, ponerle un cartel que le facilitará el Consistorio con el nombre que quieran darle, y comprometerse a cuidar “su árbol” con dos litros de agua a la semana. El riego servirá para concienciarnos de que el agua que utilizamos puede tener un aprovechamiento antes de ser desechada.
Para facilitar toda la información relativa a la campaña, se convocará una reunión cuyos detalles se darán a conocer a través de los canales de comunicación habituales (página web municipal y redes sociales).

# KIROLA
# DEPORTE

### SOSTENIBILIDAD / JASANGARRITASUNA

## Aizoain impulsa una Comunidad Energética

**REUNIÓN INFORMATIVA:**
20 de junio a las 18.30 en la Casa del Concejo

Aizoain se encuentra inmerso en la puesta en marcha de una comunidad energética, y para ello ha constituido un **grupo motor de vecinos y vecinas** que de manera voluntaria se han comprometido con el proyecto. Es el primer pueblo de la Cendea de Berrioplano en acometer la creación de una comunidad energética, una práctica cada extendida en Navarra.

Una Comunidad Energética (CE) es una entidad jurídica basada en la participación abierta y voluntaria de sus miembros, en este caso vecindario, que se crea para desarrollar proyectos de energías renovables y eficiencia energética. Su objetivo principal es proporcionar beneficios sociales, medioambientales y económicos a su base societaria  gestionando de manera eficiente los recursos económicos y materiales, mejorando la calidad de vida en este caso del concejo (500 habitantes), cuidando el entorno y aportando un granito de arena a la lucha contra el cambio climático.

El Ayuntamiento de Berrioplano ha venido acompañando al concejo en este proyecto. Lo hizo cuando el concejo colocó placas fotovoltaicas en la cubierta del frontón y parte de la energía generada se cedió a la comunidad energética. Ahora, el Ayuntamiento ha financiado el acompañamiento al grupo motor de una empresa facilitadora formada por una letrada, una experta en energía y una experta en participación.

El grupo motor aborda ahora la transmisión de lo aprendido al resto de la población y la materialización de la comunidad energética con la adesión de los vecinos y vecinas que quieran sumarse a ella.




## Aitzoainen energia-komunitate bat sustatu dute

**INFORMAZIO BILERA:**
ekainak 20, 18:30, Kontzeju Etxea

Aitzoain lan betean ari da energia-komunitate bat abian jartzeko eta, horretarako, **bizilagunez osaturiko talde eragile bat eratu dute**, beren borondatez proiektuarekiko konpromisoa harturik. Energia-komunitate bat sortzeari ekin dion lehen herria da Berriobeiti Zendean, era horretako ekimenak Nafarroan hedatzen ari diren honetan.

Energia-komunitate bat entitate juridikoa da, bere kideen, kasu honetan bizilagunen, parte-hartze ireki eta borondatezkoan oinarritua, eta energia berriztagarrietako eta energia-eraginkortasuneko proiektuak garatzeko sortzen da. Helburu nagusia da komunitate horretako kideei gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-onurak ematea, baliabide ekonomikoak eta materialak modu eraginkorrean kudeatuz, kasu honetan kontzejuaren (500 biztanle) bizi-kalitatea hobetuta , ingurunea zainduta eta aletxo bat jarrita klima-aldaketaren aurkako borrokan.

Proiektuak Berriobeitiko Udalaren laguntza jaso du; adibidez, kontzejuak pilotalekuko estalkian panel fotovoltaikoak jarri zituenean, sortutako energiaren zati bat energia-komunitateari laga zitzaion. Udalak, orain, dirulaguntza eman du enpresa erraztaile batek talde eragileari lagundu diezaion. Hain zuzen, enpresa horretan abokatu bat, energiaren arloko aditu bat eta partaidetzaren arloko beste bat dira kide.

Talde eragileak, orain, bi eginkizun ditu esku artean: batetik, orain arte ikasitakoa gainerako herritarrei irakastea eta, bestetik, energia-komunitatea gauzatzea, ekimenarekin bat egin nahi duten bizilagunak kide eginez.

### KIROLAREN EGUNA / DÍA DEL DEPORTE







## Kirolaren Eguna, biribila zinez

Eguraldi bikaina egin zuen Kirol Egunean, joan den maiatzaren 17an, eta, hala, bizilagun ugarik gustu guztietarako kirol-jarduerez betetako egun batez gozatu ahal izan zuten. Goizean, Artikako plaza berrian, zumbako eskola magistrala eta *jumping*-ekoa egin ziren, helduek eta haurrek parte hartuta. Era berean, parte-hartzaile ugari izan zen arku-tiroko jardueran, joko programatuetan (ping-ponga, golfa, futbolin puzgarria) eta puzgarrietan. Arratsaldean, 400 lagun baino gehiago izan ziren haurren klubek Berriobeitiko pilotalekuan egin zituzten erakustaldiak ikusten.

## Un Día del Deporte redondo

El buen tiempo se alió con el Día del Deporte y numerosos vecinos y vecinas disfrutaron el pasado 17 de mayo de una jornada repleta de actividades deportivas para todos los gustos. Por la mañana, la plaza nueva de Artica acogió la masterclass de zumba y la clase de *jumping*, que reunió tanto a público adulto como infantil. También tuvo mucho tirón la actividad de tiro al arco, los juegos programados (ping pong, golf, futbolín hinchable) y los hinchables. Por la tarde, más de 400 personas siguieron las exhibiciones de los distintos clubes infantiles en el frontón de Berrioplano.

# KIROLA
# DEPORTE

OFERTA MUNICIPAL / UDALAREN ESKAINTZA

## Verano en las instalaciones deportivas de Artica y Berrioplano

## Uda, Artikako eta Berriobeitiko kirol-instalazioetan

Tanto en las instalaciones deportivas de Berrioplano como en las de Artica ya han dado el pistoletazo de salida a la temporada estival. Desde el pasado 7 de junio y hasta el 7 de septiembre se podrá disfrutar de las piscinas de verano en horario de 10:00 a 21:30. En cuanto a la piscina climatizada, en la CD de Artica el horario es de 8:00 a 21:30 y en la de Berrioplano, de 10:00 a 21:30.

Berriobeitiko eta Artikako kirol-instalazioetan hasi dute udako denboraldia. Joan den ekainaren 7az geroztik eta hurrengo irailaren 7a arte, udako igerilekuak 10:00etatik 21:30era egonen dira zabalik. Igerileku klimatizatuari dagokionez, Artikakoa 08:00etatik 21:30era dago zabalik eta, Berriobeitikoa, berriz, 10:00etatik 21:30era.



### BERRIOPLANO
Actividades de animación "Miércoles locos"

16 de julio, 17:00
POOL PARTY – FIESTA DE PISCINA

23 de julio, 17:00
AQUAVOLEY

30 de julio, 17:00
TIRO CON ARCO

6 de agosto , 17:00
PINTACARAS

13 de agosto, 17:00
TALLER DE RECICLAJES

20 de agosto, 17:00
TALLER DE GLOBOFLEXIA

27 de agosto, 17:00
TALLER DE GOMA

### ARTICA
Actividades de animación "Viernes divertidos"

18 de julio, 17:00
POOL PARTY – FIESTA DE PISCINA

1 de agosto, 17:00
TIRO CON ARCO

8 de agosto , 17:00
PINTACARAS

22 de agosto, 17:00
TALLER DE GLOBOFLEXIA

29 de agosto
DÍA DEL ABONADO:
Hinchable acuático y barquitas, de 11:00 a 14:00 y de 15:30 a 19:00
Mini disco Kids de 18:00 a 20:00
Disco móvil adulto en los asadores de 20:00 a-22:00
Actividades: Yoga (11:00) / Body Pump (12:00) / Waterpolo iniciación (17:00) / Aquazumba (18:30 )

5 de septiembre, 17:00
TALLER DE GOMA EVA

### Además...

En junio, julio y agosto tanto en las instalaciones de ARTICA como en las de BERRIOPLANO se ofertan:
- **cursos de natación intensivos** de 2 semanas de duración y **aquagym** tanto en Artica como en Berrioplano
- **actividades en seco** (body pump, pilates, zumba, ciclo indoor...)
- un curso de **iniciación a la fuerza** para mayores de 65 años
- **campus de verano** dirigida a niños y niñas de 4 a 7 años y de 8 a 12 años.

### Horrez gain...

Ekain, uztail eta abuztuan, Artikako eta Berriobeitiko instalazioetan honakoak eskaintzen dira:
- **igeriketa-ikastaro trinkoak** 2 asteko iraupenekoak, eta **uretako soinketa** Artikan eta Berriobeitin
- **lehorreko jarduerak** (*body pump*-a, pilatesa, zumba, indoor zikloa...)
- **indarra lantzeko hastapen-ikastaroa** 65 urtetik gorakoentzat
- **udako campusa** 4-7 eta 8-12 urteko neska-mutilentzat



### BERRIOBEITI
Animazio-jarduerak "Asteazken zoroak"

Uztailak 16, 17:00
POOL PARTY – IGERILEKUKO JAIA

Uztailak 23, 17:00
URETAKO BOLEIBOLA

Uztailak 30, 17:00
ARKU-TIROA

Abuztuak 6, 17:00
AURPEGIAK MARGOTZEN

Abuztuak 13, 17:00
BIRZIKLAPEN-TAILERRA

Abuztuak 20, 17:00
PUXIKA-TOLES TAILERRA

Abuztuak 27, 17:00
GOMA-TAILERRA

### ARTIKA
Animazio-jarduerak "Ostiral dibertigarriak"

Uztailak 18, 17:00
POOL PARTY – IGERILEKUKO JAIA

Abuztuak 1, 17:00
ARKU-TIROA

Abuztuak 8, 17:00
AURPEGIAK MARGOTZEN

Abuztuak 22, 17:00
PUXIKA-TOLES TAILERRA

Abuztuak 29
ABONATUEN EGUNA: Uretako puzgarriak eta txalupa txikiak, 11:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:00etara
Haurrentzako diskoteka txikia, 18:00etatik 20:00etara
Helduentzako diskoteka mugikorra errelekuetan, 20:00etatik 22:00etara
Jarduerak: yoga (11:00) / body pump-a (12:00) / waterpoloa, hastapena (17:00) / aquazumba (18:30)

Irailak 5, 17:00
GOMA EVA TAILERRA

# EUSKERA
# EUSKARA

EUSKARAREN EGUNA / DÍA DEL EUSKERA

## Larragetan berriz ere ospatu da euskararen jaia

## Larragueta vivió de nuevo la fiesta del euskera

ARGAZKI ERREPORTAJEA ALDIZKARIKO KONTRAZALEAN / REPORTAJE FOTOGRÁFICO EN LA CONTRAPORTADA DE LA REVISTA

Euskararen Eguna herriz herri egiten da eta, aurten, Larragetara iritsi da, 2011. urtean bezala. Ohikoa denez, **aurreko astean** euskarari lotutako hainbat jarduera egin ziren; besteak beste, ohiko orientazio proba, aurten Larrageta inguruan burututakoa, eta "Pirinioetako euskara" izenburuko hitzaldia euskaraz, Josune Aznarezek emana. Jarduera egokiak izaten dira egun nagusiari begira giroa berotzen hasteko eta, horrela, Euskararen Jaia **ekainaren 7an** ospatu zen, ederki ospatu ere. Goizean, herriko karrikak jendez lepo egon ziren, eta hantxe ere, erraldoiak, dantzariak eta herri kirolariak. Arratsaldeko ekitaldiak, berriz, pilotalekuan egin ziren. Bazkarian, bestalde, 160 lagun elkartu ziren. Arratsaldean besta giro ederra izan zen, haurrak eta helduak gogotik aritu baitziren jostetan, kantuan eta dantzan.





El Día del Euskera sigue rotando por los pueblos de la Cendea y este año se ha celebrado en Larragueta, que ya fue sede de la fiesta en 2011. Como en ediciones anteriores, la **semana previa** se organizaron diversas actividades ligadas al euskera, entre ellas, la tradicional prueba de orientación, que se desarrolló en los alrededores de Larragueta y una charla en euskera titulada "Pirinioetako euskara" a cargo de Josune Aznarez. Si las actividades previas sirvieron para calentar motores, el día grande fue el **sábado 7 de junio**. Por la mañana, las calles del pueblo se abarrotaron de gente que disfrutó de los gigantes, las danzas y del deporte rural. Los actos de la tarde se celebraron en el frontón. En la comida participaron 160 comensales. Durante toda la tarde, txikis y mayores disfrutaron de la fiesta jugando, cantando y bailando.

UDALAREN DIRULAGUNTZAK / SUBVENCIONES MUNICIPALES

## Euskara ikasteko laguntzak

Beste urte batez, 2024ko uztailaren 1a eta 2025eko ekainaren 30a artean euskara ikasteko eskoletara joan diren berriobeitiarrek dirulaguntza eska dezakete (uztailaren 5a bitartean, Udal Erregistroan). Bi faktore hauen arabera ezarriko da laguntzen zenbatekoa: errenta eta eskoletara joan izana. Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, herritarrei dirulaguntzak emateko udal ordenantzan jasoa dagoen prozedurari jarraituko zaio, oro har.

**Udalekuetarako dirulaguntzak**

Udalerritik kanpo egiten diren euskarazko udalekuetan parte hartzeko bekak ere iragarri ditu Udalak. Eskaerak irailaren 1etik 30era aurkeztu ahal izango dira, Udal Erregistroan. Osorik euskaraz egiten diren eta D ereduko ikasleentzat (ikastetxe publikoetan eta ikastoletan euskaraz ikasten duten ikasleak) antolatzen diren udalekuetako egonaldiek eragindako gastuak lagunduko dira diruz, hau da, bizi den herritik kanpoko egonaldien gastuak. Udako oporraldian egindako kanpamentuak izanen dira (ekainaren 20tik irailaren 10era).

**INFO+**
**Euskara zerbitzua / Servicio de euskera**
**948 30 31 29**
**euskara@berrioplano.es**

## Ayudas al estudio del euskera

Un año más, las personas vecinas del municipio de Berrioplano que hayan asistido a clases para aprender euskera entre el 1 de julio de 2024 y el 30 de junio de 2025 pueden solicitar una subvención hasta el 5 de julio en el Registro del Ayuntamiento. La cuantía de las ayudas se establecerá en función de dos factores: la renta y la asistencia. Como norma general, el cálculo de la cuantía se hará siguiendo el procedimiento marcado en la Ordenanza reguladora de las subvenciones a la ciudadanía del Ayuntamiento de Berrioplano.

**Subvenciones para los campamentos de verano**

El Ayuntamiento ha convocado también las becas para los campamentos de verano en euskera que se desarrollan fuera del municipio. Las solicitudes podrán presentarse del 1 al 30 de septiembre en el Registro Municipal. Se subvencionarán los gastos originados por estancias en campamentos realizados íntegramente en euskera y organizados para alumnado de modelo D (alumnado que estudia en euskera en colegios públicos e ikastolas), es decir, gastos de estancias fuera de la localidad de residencia. Deberán ser campamentos realizados durante el periodo vacacional de verano (del 20 de junio al 10 de septiembre).

OCIO TAMBIÉN EN EUSKERA / AISAILDIA ERE EUSKARAZ

## El ciclo de ocio infantil en euskera regresará en octubre

El Servicio de Euskera tiene previsto volver a organizar el ciclo "Aisialdia ERE euskaraz" ("Ocio TAMBIÉN en euskera) a partir de octubre, tras la alta participación registrada en los talleres, con grupos de entre 15 y 20 asistentes. Este programa, que ofrece actividades de ocio en euskera a niñas y niños de los pueblos más pequeños de la Cendea, se ha desarrollado un sábado al mes en la casa del concejo de Berriosuso. Las actividades han sido talleres de cocina y de pizza, un taller de circo y un taller de macetas y plantas.



## Haurrentzako euskarazko aisia-zikloa urrian itzuliko da

Euskara Zerbitzuak antolaturik, "Aisialdia ERE euskaraz" zikloa eginen da berriro urritik aurrera, partehartze handia izan baita tailerretan, taldeak 15-20 kidekoak izan dira eta. Programak aisia-jarduerak eskaintzen dizkie euskaraz Zendeako herri txikienetako neska-mutikoei, eta hilean behin egiten da larunbat batean, Berriogoitiko kontzeju-etxean. Zehazki, sukaldaritza- eta pizza-tailerrak, zirku-tailerra eta loreontzien eta landareen tailer bat egin dituzte.

# REPORTAJE ERREPORTAJEA

## ESCUELA DE MÚSICA OREAGA / ORREAGA MUSIKA ESKOLA

# Grandes éxitos a ritmo de orquesta

**El alumnado de la escuela municipal de música Orreaga (Casa de Cultura María de Maeztu) participa junto con el profesorado en un concierto de fin de curso que se ha convertido en el evento más esperado del año.**

# Kantu arrakastatsuak, orkestra erritmoan

**Orreaga musika eskolako ikasleak (María de Maeztu Kultur Etxea) irakasleekin batera aritu dira ikasturte amaierako kontzertuan, urteko ekitaldirik irrikatuenean, alegia.**







Pocos espectáculos pueden presumir de ser un éxito antes de su presentación en público, pero el concierto de fin de curso de la escuela municipal de música Orreaga se lo ha ganado a base de trabajo, ilusión y ensayos, muchos ensayos. Más de 100 alumnos y alumnas se subieron el pasado 11 de junio al escenario de la Casa de Cultura de Artica para interpretar, a ritmo de orquesta, un animado repertorio que puso a bailar a más de un espectador con canciones como *I will survive*, de Gloria Gaynor, *Super Trouper*, de Abba; o un popurrí de grandes éxitos de Alaska.

Bajo el título *No sin mi play list*, el show de este año ha emulado un programa de radio fórmula con una variedad de éxitos tanto nacionales como internacionales. "Elijo los temas y hago los arreglos de las canciones. Es un trabajo de meses de preparación porque es más que un concierto de música, es un recital profesional con guion, técnicos de sonido y disfraces. Cada año pienso en un espectáculo diferente. El año pasado, por ejemplo, la propuesta fue un musical de Abba; el anterior, música de los 80; y este año he seleccionado, entre otras, algunas de las canciones más emblemáticas de La Oreja de Van Gogh, Alaska, Bon Jovi o temas tan conocidos como *Negua joan da ta*, de Zea Mays", nos explica el director de la escuela José Ramón García, que es también el director del concierto de fin de curso.

**En la piel de músicos profesionales**

Para la escuela municipal de música el concierto de fin de curso es el gran proyecto del curso y su objetivo principal es que el alumnado participe en un concierto profesional, delante del público y con todas las agrupaciones y combos a la vez, como si se tratara de una auténtica orquesta. "Creemos que es importante que toquen con sus profesores y profesoras porque nunca lo hacen y es bueno hacerlo con quienes tienen experiencia y saben más que tú. Se aprende mucho. Además, es una oportunidad única para tocar todos juntos, normalmente lo hacen por separado: los combos de cuerda por un lado, las agrupaciones de guitarra por otro, las de viento por otro…".

En el concierto participa el alumnado de cuarto curso en adelante. Para algunos, como Iker, que toca el saxofón, es su primer año y reconoce que le da "un poco de pereza," pero seguro que el año que viene piensa como su compañero Oier (trompeta). "Es la segunda vez que participo. La experiencia es muy guay porque las canciones son conocidas y, al tocarlas en grupo, suenan muy bien". También es el segundo







año de Mirleth, que lleva 6 tocando flauta travesera. "El año pasado me lo pasé genial. ¡Cómo sonaba la banda! Nos los pasamos muy bien y ver que todo el público disfrutaba fue muy bonito". Seguramente, muchos y muchas de las que se suban por primera vez al escenario no podrán reprimir algún que otro nervio, como Oxane, que lleva cuatro años estudiando violín. "El año pasado me puse nerviosa porque estaba actuando delante del público, pero me gustó mucho".
Los conciertos de fin de curso han tenido tanto éxito que desde hace años se ofrecen dos pases. Por eso, Hodei (trikitixa), que ya es un veterano de los conciertos de fin de curso, ofrece la clave para disfrutar. "El primer concierto impresiona un poco, pero en el segundo se disfruta más. El repertorio de este año está muy bien, conocíamos todas las canciones. La verdad es que es emocionante porque tocamos todos juntos".
El alumnado de iniciación (4-7 años) también tiene su propio concierto de fin de curso. Hacen un coro y bailan, acompañados musicalmente por su profesorado.

Ikuskizun gutxik esan dezakete arrakasta lortua dutela jendaurrean eman aurretik, baina horixe lortu du Udaleko Orreaga musika eskolaren ikasturte amaierako kontzertuak, gogotik lan eginez, bizi pozez eta hamaika entseguren bidez. Izan ere, joan den ekainaren 11n, 100 ikasle baino gehiago igo ziren Artikako kultur etxeko agertokira, orkestra erritmoan, errepertorio alai bat interpretatzeko. Ikus-entzule bat baino gehiago jarri zuten dantzan hainbat abestiren bidez; haien artean, Gloria Gaynorren *I will survive*, Abbaren Super Trouper eta Alaskaren kantu arrakastatsuz osaturiko potpourria.
*No sin mi play list* izenburupean, aurtengo showak irrati-formularen moldea izan du, estatuko eta nazioarteko kantu arrakastatsu ugari emateko. "Gaiak hautatu eta abestien moldaketak egiten ditut. Prestatzen hainbat hilabete ematen ditut, musika-kontzertu hutsa baino gehiago baita, gidoia, soinu-teknikariak eta mozorroak dituen errezitaldi profesionala baita. Urtero ikuskizun desberdina asmatzen dut. Adibidez, joan den urtean, proposamena Abbaren musikal bat izan zen; aurrekoan, 1980ko hamarkadako musika; eta aurten, besteak beste, La Oreja de Van Gogh, Alaska eta Bon Joviren abesti enblematikoenak hautatu ditut, bai eta Zea Maysen *Negua joan da ta ezaguna ere*", azaldu digu José Ramón García eskolako zuzendari eta, era berean, ikasturte amaierako kontzertuaren zuzendariak.

**Musikari profesionalen azalean**
Udaleko musika-eskolarentzat, ikasturte amaierako kontzertua ikasturte osoko proiektu handia da, eta helburu nagusia da ikasleek kontzertu profesional batean parte hartzea, publikoaren aurrean eta talde eta konbo guztiak batera arituta, benetako orkestra balitz bezala. "Gure ustez, garrantzitsua da irakasleekin batera jotzea, ez baitute inoiz egiten eta ona baita esperientzia dutenekin eta zuk baino gehiago dakitenekin egitea. Asko ikasten da. Gainera, aukera paregabea da denek batera jotzeko, jeneralean bereiz egiten baitute: hari-konboek alde batetik, gitarra-taldeek beste batetik, haize-taldeek beste batetik...".
Laugarren mailatik aurrerako ikasle guztiek parte hartzen dute. Batzuentzat, adibidez, Iker saxofoi-jotzailearentzat, aurreneko urtea da eta aitortu du "nagitasun pitin bat" ematen diola, baina ziur hurrengo urtean Oier ikaskideak (tronpetajotzailea) bezala pentsatuko duela: "Parte hartzen dudan bigarren aldia da. Esperientzia bikaina da, abestiak ezagunak baitira eta, taldean jotzean, oso ongi entzuten baitira". Mirlethen kasuan ere bigarren urtea da. 6 urte daramatza zeharkako txirula jotzen: "Aurreko urtean primeran pasatu nuen. Zeinen ongi entzuten zen banda! Oso ongi pasatu genuen, eta ikus-entzule guztiek gozatzen zutela ikustea oso ederra izan zen". Ziur asko, oholtzara lehen aldiz igotzen diren askok ezingo dituzte nerbioak ekidin, Oxanek bezala. Oxanek lau urte daramatza biolina ikasten: "Joan den urtean urduri jarri nintzen, jendaurrean ari nintzelako, baina ikaragarri gustatu zitzaidan".
Ikasturte amaierako kontzertu hauek halako arrakasta izan dute, ezen duela urte batzuetatik bi emanaldi eskaintzen baitira. Hori dela-eta, Hodeik (trikitijotzailea), zeina eskarmentu handikoa den jada kontzertu hauetan, gozatzeko gakoa azaldu du: "Aurreneko kontzertuak zirrara pitin bat sortzen du, baina bigarrenaz gehiago gozatzen da. Aurtengo errepertorioa oso ongi dago, abesti guztiak ezagutzen baikenituen. Egia esateko, hunkigarria da, denok elkarrekin jotzen baitugu".
Musika-hastapenetako ikasleek ere (4-7

# KULTURA
# CULTURA

**Una experiencia que deja huella**

Aunque los profesores se encargan de incluir los temas del concierto en las clases, el repertorio del espectáculo es un secreto hasta el primer ensayo. "Imagínate la curiosidad que despierta que desde Navidades me pregunta cuál va a ser el espectáculo de este año. Creo que es una experiencia muy buena para quienes la han vivido. De hecho, hay exalumnos, que están en la universidad o en el conservatorio, que llaman para ver si pueden participar porque tienen muy buen recuerdo y quieren volver a tocar en el concierto de fin de curso de la escuela porque se lo pasan muy bien", comenta José Ramón.

Además del objetivo pedagógico y curricular, el concierto de fin de curso sirve para reforzar las relaciones entre el alumnado y crear lazos de amistad. "El proyecto nos gusta porque hace escuela. Al ensayar juntos tantas horas, se crea muy buen ambiente y se hacen amigos. Incluso un grupo de chicos y chicas que ha participado en las salidas e intercambios que hacemos con otras escuelas de música ha hecho cuadrilla y suele quedar todos los sábados en Artica".

Se mire por donde se mire, el concierto de fin de curso es un éxito para el alumnado, el profesorado y para las familias. Y lo mejor de todo y como dice José Ramón "un triunfo antes de llevarlo a cabo, aunque eso implique muchos nervios para que todo salga bien".



urte) egiten dute ikasturte amaierako kontzertua. Korua egin eta dantzatu egiten dute, irakasleek musikalki lagunduta.

**Arrastoa uzten duen esperientzia**

Nahiz eta irakasleak arduratzen diren kontzertuko abestiak eskoletan lantzeaz, ikuskizuneko errepertorioa sekretua izaten da aurreneko entsegua egin arte. "Imajina ezazu zer-nolako jakinmina pizten duen: Eguberriez geroztik galdetzen didate zein izanen ote den ikuskizuna. Bizitzen dutenentzat oso esperientzia ona dela uste dut. Izan ere, unibertsitatean edo kontserbatorioan dauden hainbat ikasle ohik deitzen dute parte har dezaketen galdetzeko, oso oroitzapen ona dutelako eta berriro jo nahi dutelako, eskolako ikasturte amaierako kontzertuan oso ongi pasatzen dutelako", aipatu du José Ramónek.

Helburu pedagogikoa eta curriculumekoa edukitzeaz gain, ikasturte amaierako kontzertuak ikasleen arteko harremanak sendotu eta laguntasun-loturak sortzeko balio du. "Proiektua gustatzen zaigu eskola egiten duelako. Entseatzen hainbeste ordu igarotzean, oso giro ona sortzen da eta elkarren lagun egiten dira. Beste musika-eskola batzuekin egiten ditugun trukeetan eta irteeretan parte hartu duten neska-mutiko batzuek ere laguntaldea egin dute eta larunbatero elkartzen dira Artikan".

Edozein alderditatik begiratuta, ikasturte amaierako kontzertua arrakasta da ikasle, irakasle eta familientzat. Eta onena, eta José Ramónek esaten duen moduan, "lorpena da huraxe egin aurretik, nahiz eta nerbio handiak ekarri berekin, dena ongi atera dadin".

## ARTIKA / ARTICA







## Erraldoi-festa, Konpartsaren Eguna ospatzeko

Artikako Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak bere egun handia ospatu zuen joan den maiatzaren 31n, jaia eta musika herriko kaleetan hedatuz. Desfilea egin zuten, bazkaria, bazkalondoan musika eta bakarrizketari bat, puzgarriak, dantzaldia orkestra eta disko-jartzailearekin, eta, eguna amaitzeko, zezensuzkoa.

## Gigantada para celebrar el Día de la Comparsa

La Comparsa de Gigantes y Cabezudos de Artica celebró el pasado 31 de mayo su día grande con una gigantada que llevó la fiesta y la música a las calles de la localidad. Hubo desfile, comida con sobremesa musical y un monologuista, hinchables, baile con orquesta y DJ, y para terminar la jornada, toro de fuego.

SEMANA DE LA MEMORIA HISTÓRICA / MEMORIA HISTORIKOAREN ASTEA

# Teatro, presentación de un libro y una exposición para no olvidar

El Ayuntamiento organizó en mayo tres eventos relacionados con la Memoria Histórica. El primero, que tuvo lugar el 20 de mayo en la Biblioteca Pública de Berrioplano, fue la presentación del libro *Mauro* a cargo de su autor, Mikel Guerendiain. La novela pone el foco en los habitantes de los pueblos transfronterizos a los que huyeron algunos de los 800 presos que se fugaron del penal de San Cristóbal y cuyas vidas se vieron alteradas por la llegada de los fugados y sus perseguidores.
La segunda actividad fue la representación teatral el 24 de mayo de *El hombre aro y la chica que buscaba a Lorca*, de Iluna Producciones. Una historia de amor y amistad, de inocencia y descubrimiento, de tragedia y esperanza en plena guerra civil. Un homenaje a Lorca y a la comunidad gitana.
Además, durante todo el mes de mayo la Casa de Cultura María de Maeztu acogió la exposición del Instituto Navarro de la Memoria *Fronteras de hormigón*, una muestra sobre el Muro Atlántico y la Fortificación del Pirineo, dos infraestructuras construidas en el contexto de la II Guerra Mundial por miles de trabajadores, en su mayoría represaliados políticos del nazismo y el franquismo.






# Antzerkia, liburu-aurkezpen bat eta erakusketa bat, ez ahazteko

Memoria historikoarekin lotutako hiru ekitaldi antolatu zituen Udalak maiatzean. Aurrenekoa maiatzaren 20an egin zen, Berriobeitiko herri-liburutegian, eta *Mauro* liburua aurkeztea izan zen. Zehazki, Mikel Guerendiain egileak aurkeztu zuen. Ezkabako presondegitik ihes egin zuten 800 presoetako batzuk mugaz haraindiko herrietara iritsi ziren eta, hain zuzen, eleberriak herri haietako biztanleengan jartzen du arreta, haien bizimodua aldatu egin batzen, ihes egindakoak eta haiei jarraika joandakoak iritsi izanaren ondorioz.
Bigarren jarduera Iluna Producciones konpainiaren *El hombre aro y la chica que buscaba a Lorca* antzezlanaren emanaldia izan zen, maiatzaren 24an. Maitasun- eta adiskidetasun-istorioa, lañotasunekoa eta deskubrimendukoa, tragediakoa eta itxaropenekoa 36ko gerra betean. Lorcari eta ijito-komunitateari egindako omenaldia.
Horrez gain, maiatz osoan, Maria Maeztu Kultur Etxean, Memoriaren Nafarroako Institutuaren *Hormigoizko Mugak* erakusketa egon zen ikusgai. Atlantikoko Harresiari eta Pirinioen Gotortzeari buruzko erakusketa. Bi azpiegitura horiek II. Mundu Gerraren testuinguruan eraiki zituzten milaka langilek, gehienak ere nazismoak eta frankismoak errepresaliatuak izan zirenek.

AMETZA ABESBATZA / CORAL AMETZA

## Kontzertu-denboraldia

Abesbatza-truke bat egiteko maiatzaren amaieran Aguilar de Campoora (Palentzia) joan eta ekainean Euskararen 7. Astean parte hartu eta gero, Ametza abesbatzak kontzertua emango du ekainaren 19an Orvinan, Teniseko abesbatzarekin batera. Halaber, Zendearen Egunean parte hartuko du, Oteitzan, irailaren 27an, larunbata. Hain zuzen, Aguilar de Campooko abesbatza ere Oteitzan ariko da, hala, maiatzeko bisita itzultzeko.



## Temporada de conciertos

Después de acudir a finales de mayo a Aguilar de Campoo (Palencia) para realizar un intercambio coral y de participar en la Semana del Euskera el 7 de junio, la coral Ametza ofrecerá un concierto el próximo 19 de junio en Orvina, junto con la coral del Tenis. Asimismo, participará en el Día de la Cendea en Oteiza el sábado 27 de septiembre, en una actuación en la que también estará presente la coral de Aguilar de Campoo, que devuelve así, la visita de mayo.

IZEN-EMATEA / INSCRIPCIÓN

## Plaza libreak udalekuetan

Haurrentzako hiri-udalekuek izena emateko beste egun bat eskainiko dute, uztailaren 1a, hasierako prozesua amaitu eta gero libre gelditu diren plazak osatzeko. Ohiz kanpoko izen-emate hau 2. txandarako (uztailaren 15etik abuztuaren 1era, uztailaren 15a jaieguna), 3. txandarako (abuztuaren 4tik 14ra) eta 4. txandarako (abuztuaren 18tik 29ra) izango da. Plaza-eskaerak 012 Infolocal telefonoaren bidez egingo dira (948 012 012). Izen-ematea eta ordainketa zuzenean egingo dira, dei-ordenaren arabera.

## Plazas libres en los campamentos de verano

Los campamentos urbanos infantiles de verano abrirán una nueva fecha de inscripción el 1 de julio para completar las plazas que hayan quedado libres una vez finalizado el proceso inicial. Esta inscripción extraordinaria será válida para la tanda 2 (del 15 de julio al 1 de agosto, 25 de julio festivo), tanda 3 (del 4 al 14 de agosto) y tanda 4 (del 18 al 29 de agosto). Las solicitudes de plaza se realizarán a través del teléfono 012 Infolocal (948 012 012). La inscripción y el pago serán directos por orden de llamada.

# KULTURA
# CULTURA

TEATRO, MAGIA Y CINE / ANTZERKIA, MAGIA ETA ZINEMA

## ¡Arriba el telón de verano!

El Servicio de Cultura, en colaboración con los Concejos, ha organizado para los meses de verano un variado programa de actividades al aire libre para disfrutar en los pueblos de la Cendea.

## Udako oihala, gora!

Kultura Zerbitzuak, kontzejuekin elkarlanean, aire zabaleko jardueren egitarau askotarikoa antolatu du udako hilabeteetarako, Zendeako herrietan gozatzeko.



**TEATRO**
Viernes 1 de agosto
Larragueta

18:00, FRONTÓN
**“Centrifugado” PRODUCCIONES KINSER**
**Todos los públicos / 55 minutos**

Jano es un aspirante a limpiador que debe superar unas cuantas pruebas para entrar en una exigente empresa de limpieza. Para conseguirlo, barre la tristeza, friega cualquier residuo de desilusión y saca brillo a sus emociones. Centrifuga la alegría, echa el freno de su carro ante cualquier adversidad y saca una sonrisa del jurado que lo examina. Espectáculo de teatro y clown cargado de números visuales, pantomima, música e interacción con el público. Para reír y hacer pensar.

**ANTZERKIA**
Abuztuak 1, ostirala
Larrageta

18:00etan, PILOTALEKUAN
**“Centrifugado” PRODUCCIONES KINSER**
**Publiko guztiak / 55 minutu**

Janok garbitzailea izan nahi du, eta hainbat proba gainditu behar ditu, garbiketa-enpresa zorrotz batean sartzeko. Hori lortzeko, tristura erraztatzen du, edozein etsipen-hondakin urez garbitzen du eta bere emozioei distira ateratzen die. Alaitasuna zentrifugatzen du, bere gurdiaren balazta jartzen du edozein zoritxarren aurrean eta irribarre eginarazten dio bera aztertzen duen epaimahaiari. Antzerki- eta clown-ikuskizuna, saio bisual ugari, pantomima, musika eta publikoarekiko interakzioa dituena. Barre eginarazteko eta pentsarazteko.



**CINE AL AIRE LIBRE**
Sábado 9 de agosto
Oteiza

22:00, PLAZA
**Wonka” (comedia musical-familiar) PAUL KING**
**Todos los públicos / 112 minutos**

Basada en el personaje de “Charlie y la fábrica de chocolate”, el libro infantil más emblemático de Roald Dahl y uno de los más vendidos de todos los tiempos. La película cuenta la historia de cómo el mayor inventor, mago y chocolatero del mundo se convirtió en el querido Willy Wonka que conocemos hoy, centrándose en su juventud y en el encuentro con Oompa-Loompa en una de sus primeras aventuras.

**AIRE ZABALEKO ZINEMA**
Abuztuak 9, larunbata
Oteitza

22:00etan, PLAZAN
**“Wonka” (komedia musikal-familiarra) Paul King**
**Publiko guztiak / 112 minutu**

“Charlie eta txokolate-lantegia” liburuko pertsonaian oinarritua. Liburu hori Roald Dahlen haur-liburu adierazgarriena da, eta bai gehien salduetako bat ere. Filmean kontatzen da nola bihurtu zen munduko asmatzaile, mago eta txokolategile handiena egun ezagutzen dugun Willy Wonka maitea, ardatz harturik bai haren gaztaroa, bai, aurreneko abenturetako batean, Oompa-loomparekin izandako topaketa.



**CINE AL AIRE LIBRE**
Sábado 23 de agosto
Artica

22:00, PLAZA DE NUEVO ARTICA
**“Robot-Dreams” (animación) PABLO BERGER**
**Todos los públicos / 102 minutos**

Dog es un perro solitario que vive en Manhattan. Un día decide construirse un robot para que sea amigo. Su amistad crece, hasta hacerse inseparables. Pero con gran pena, Dog se ve obligado a abandonarlo en la playa una noche de verano.
Esta película se estrenó en el Festival de Cine de Cannes y estuvo nominada a los premios Óscar en 2024.

**AIRE ZABALEKO ZINEMA**
Abuztuak 23, larunbata
Artika

22:00etan, ARTIKABERRIKO PLAZAN
**“Robot-Dreams”(animazioa) PABLO BERGER**
**Publiko guztiak / 102 minutu**

Dog Manhattanen bizi den txakur bakartia da. Egun batean, robot bat eraikitzea erabakiko du, bere laguna izateko. Lagun minak egingo dira, bereizezinak. Atsekabe handiarekin, ordea, Dogek abandonatu egin beharko du hondartzan, udako gau batean.

Filma hau Cannesko Zinemaldian estreinatu zuten, eta Oscar sarietarako izendatu zuten 2024an.

HERRIKO JAIAK / FIESTAS PATRONALES

## Abian dira herrietako jaiak

Lehenak Berriobeitikoak eta Ballariaingoak izan dira, eta bietan ere besta giro ederra izan da ekain hasieran. Oteitzak ekainaren 20-22ko asteburuan ospatuko ditu eta, gainerakoek, berriz, abuztuan eta irailean. Guztietan ere, herri bazkariak, musika karrikaz karrika, puzgarriak eta mus txapelketak. Honatx datak: Larragetan, abuztuaren 1etik 3ra; Berriogoitin, abuztuaren 29tik 31ra; Añezkarren, Elkarten eta Artikan, irailaren 5etik 7ra, eta azkenak, Lotzan, irailaren 12tik 14ra.

## Arrancan las fiestas de verano de los pueblos

Las primeras fueron las de Berrioplano y Ballariain, que vivieron un arranque de junio de lo más festivo. Oteiza lo hará el fin de semana del 20 al 22 de junio y a partir de agosto volverán las comidas populares, la música por las calles, los hinchables y los campeonatos de mus al resto de nuestros pueblos. En Larragueta las fiestas se celebrarán del 1 al 3 de agosto; en Berriosuso, del 29 al 31 de agosto; en Añézar, Elcarte y Artica, del 5 al 7 de septiembre; y Loza cerrará el calendario festivo, del 12 al 14 de septiembre.



## TEATRO
### Viernes 29 de agosto
### Berriosuso

18:30, FRONTÓN
**“¿El último fakir?”**
**ZIRIKA ZIRKUS**
**Todos los públicos / 60 minutos**

El Gran Sir Imiri Fakirra, tragasables, come fuegos, escapista del dolor, fakir centenario, se enfrenta a sus últimas funciones antes de su retiro. Con la incertidumbre de si pasará a la historia como el último fakir, o por el contrario, será capaz de transmitirle todos sus conocimientos a su sobrino, el cual siente una gran admiración por su tío, pero al mismo tiempo sufre de una fobia tal vez irreparable por cualquier objeto punzante, cortante o quemante. ¿Hará frente a sus miedos?

## ANTZERKIA
### Abuztuak 29, ostirala
### Berriogoiti

18:30ean, FRONTOIAN
**“¿El último fakir?”**
**Zirika Zirkus**
**Publiko guztiak / 60 minutu**

Sir Imiri Fakirra handia, ezpatajalea, su-jalea, minaren eskapista, ehun urtetik gorako fakirra, azken emanaldiak egiten ari da erretiroa hartu aurretik. Ez daki ziur azken fakir moduan agertuko den historian edo, alderantziz, ilobari bere ezagutza guztiak irakasteko gai izango den. Ilobak izugarri miresten du osaba, baina, era berean, beharbada gainditzen ezinezkoa den fobia bat sentitzen du edozein objektu zorrotz, ebakitzaile edo erretzaile ikusten duenean. Guza izango ote da bere beldurrei aurre egiteko?



## TEATRO
### Viernes 5 de septiembre
### Añézcar

18:00, FRONTÓN
**“Marietak Zirkus”**
**ZIRIKA ZIRKUS**
**Todos los públicos / 60 minutos**

En una compañía familiar de circo, dos sobrinas quieren tanto a su tía que la cuidan por encima de sus posibilidades. La mantendrían entre algodones, si pudieran. Y es que hay amores que frenan. Por eso, la tía o, como ellas la llaman, Mari Pantxi, quien las cuidaba y consentía de pequeñas, quien proponía los planes más locos, les va a hacer ver dónde acaba el cariño, la solidaridad, la sororidad… para dar paso al capacitismo. Teatro-circo para toda la familia que fusiona equilibrios, acrobacias, acroportes, clown y malabares con música y bailes. Y Humor, mucho humor.

## ANTZERKIA
### Irailak 5, ostirala
### Añezkar

18:00etan, FRONTOIAN
**“Marietak Zirkus”**
**Zirika Zirkus**
**Publiko guztiak / 60 min**

Zirku-konpainia familiar batean, bi ilobak izugarri maite dute izeba eta beren aukeren gainetik zaintzen dute. Ahal izango balute, esne-mamitan edukiko lukete. Izan ere, maitasun batzuek geldiarazi egiten dute. Hori dela-eta, izebak, ilobek esaten dioten moduan, Mari Pantxik, txikitan zaindu eta dena onartzen zienak, planik zoroenak proposatzen zituenak, ikusaraziko die non amaitzen den maitasuna, elkartasuna, sororitatea… kapazitismoari aukera emateko. Familia osoarentzako antzerki-zirkua, orekak, akrobaziak, akroporteak, clowna eta malabarrak musikarekin eta dantzekin batzen dituena. Eta umorea, umore izugarria.



## TEATRO-MAGIA
### Domingo 7 de septiembre
### Elcarte

17:30, PLAZA
**“Ver para creer”**
**TEATROS MÁGICOS**
**Todos los públicos / 60 minutos**

Espectáculo de magia y humor para todas las edades. Un show en el que la magia y la ilusión son las protagonistas. Incluye números de escapismo, grandes ilusiones, magia cómica, … Dinámico e impactante, este espectáculo de magia maravillará por sus sorprendentes números de ilusionismo. A nadie dejará indiferente, ya sea una persona adulta o txiki. Acércate porque no lo olvidarás jamás.

## ANTZERKIA-MAGIA
### Irailak 7, igandea
### Elkarte

17:30ean, PLAZAN
**“Ver para creer”**
**Teatros mágicos**
**Publiko guztiak / 60 minutu**

Adin guztietarako magia- eta umore-ikuskizuna. Show honetan magia eta ilusioa dira protagonistak. Eskapismo-saioak, ilusio handiak, magia komikoa… barne hartzen ditu. Dinamikoa eta hunkigarria, magia-ikuskizun honek txundituta utziko ditu ikusleak, bere ilusionismo-saio harrigarriengatik. Inor ez da epel geldituko, heldua edo txikia izan. Joan zaitez ikustera, ez baituzu inoiz ahaztuko.



## TEATRO
### Viernes 12 de septiembre
### Loza

18:30, CARPA
**“Bromas dulces como la miel”**
**PRODUCCIONES KINSER**
**Todos los públicos / 60 minutos**

Kiny y Jano llevan muchos años gastándose bromas y están más unidos que nunca. Son padre e hijo y se quieren y se necesitan. Silbotas, aprendiz de clown,sabe, a pesar de su juventud, que la intención no es reírse de los demás, sino con los demás. Nunca debemos hacer lo que no nos gustaría que nos hicieran a nosotros. Kiny, Jano y Silbotas, fieles a su estilo de payasos clásicos, nos enseñarán que las bromas deben ser dulces como la miel.

## ANTZERKIA
### Irailak 12, ostirala
### Lotza

18:30ean, KARPAN
**“Bromas dulces como la miel”**
**Producciones Kinser**
**Publiko guztiak / 60 minutu**

Kinyk eta Janok urte asko daramatzate elkarri txantxak egiten, eta inoiz baino batuago daude. Aita-semea dira, eta elkar maite eta behar dute. Silbotas clown-ikastunak badaki, nahiz eta gaztea den, asmoa ez dela besteen lepotik barre egitea, besteekin egitea baizik. Inoiz ez dugu egin behar guri egitea gustatuko ez litzaigukeen hori. Kinyk, Janok eta Silbotasek, pailazo klasikoen beren estiloari leial, erakutsiko digute txantxek eztiak bezain gozoak izan behar dutela.

FIESTA DE HERMANDAD / SENIDETASUNEZKO JAIA

# El Día de la Cendea se celebrará en Oteiza

El **27 de septiembre** los diez concejos del municipio de Berrioplano volverán a reunirse para celebrar el Día de la Cendea, este año en Oteiza. No faltarán la tradicional comida popular (venta de tickets, del 15 al 19 de septiembre), los espectáculos musicales y otras actividades fijas de esta jornada. La programación completa se dará a conocer a lo largo del verano por los canales de comunicación habituales (redes y web municipal).
La venta de **tickets** para la **comida** del Día de la Cendea será del **15 al 19 de septiembre**.



# Zendearen Eguna Oteitzan egingo da

**Irailaren 27an**, Berriobeitiko udalerriko hamar kontzejuak berriro elkartuko dira Zendearen Eguna ospatzeko, aurten Oteitzan. Herri-bazkari tradizionala (txartelak, irailaren 15etik 19ra), musika-ikuskizunak eta egun honetan egin ohi diren beste jarduera batzuk egongo dira. Programazio osoaren berri udan zehar emango da, ohiko komunikazio-kanalen bitartez (sare sozialak eta udal-webgunea).
Zendearen Eguneko bazkarirako **txartelak irailaren 15etik 19ra** salduko dira.

# BERRIOBEITIKO BIDEAK
# CAMINOS DE BERRIOPLANO




## Eguillor ······> Oteiza

La penúltima etapa de la Vuelta a la Cuenca de Pamplona **(GR 220)**, la 5, recorre los límites de la Cuenca en su región noroeste y termina en el pueblo de Oteiza. Asciende a las cercanías de dos cimas que, a pesar de no ser muy altas, suponen dos acercamientos con fuertes repechos, especialmente la primera (Bizkai).
En la primera parte circulamos entre Eguillor y Lete por campos de labor y carrascas, cercanos al monasterio de Yarte. Después, una regata nos conduce a la caja del ferrocarril y subimos a la ermita de Nuestra Sra. del Rosario de Artiza (**1**) antes de llegar a Atondo. Alcanzado el pueblo ganamos las laderas de Bizkai (**2**) para coronar la cresta.
Descendiendo al este llegamos a las inmediaciones de Ochovi, pasamos a Erice de Iza y atravesando la carretera general (N-240) pasamos bajo la autopista y seguimos hasta el collado de Santa Cruz (**3**); bajaremos después a la carretera de Arístregui y subiremos a la cima de Eltxumendi (**4**). Queda el descenso, por el camino «de las Fuentes», hasta el final de etapa, Oteiza.



**IGAROBIDEAK / LUGARES DE PASO:** Egillor-Lete-Atondo-Eritze-Oteitza
**LUZERA / DISTANCIA:** 19,7 km
**DESNIBEL POSITIBOA / DESNIVEL POSITIVO:** 894 m
**DESNIBEL NEGATIBOA / DESNIVEL NEGATIVO:** 823 m
**AURREIKUSITAKO DENBORA / TIEMPO ESTIMADO:** 6 h 26 m
**ZAILTASUNA / DIFICULTAD:** ertaina / moderada
**INFO+:** senderos.nafarmendi.org

## Egillor ······> Oteitza

Iruñerriko Itzuliaren (GR 220) azken-aurreko etapa, 5.a, Iruñerriaren mugetan egiten da ipar-mendebaldeko eskualdean eta Oteitza herrian bukatzen da. Oso garaiak ez badira ere, aldapa handiak dituzten bi gailurren inguruetara igotzen da, Bereziki, lehenbizikoak diru aldapa latzak (Bizkai).
Aurreneko zatian, Egillor eta Lete artean ibiliko gara, lur landuen eta arteen artean, Iharteko monasteriotik gertu. Gero, erreka batek trenbidera gidatuko gaitu eta Artitzako Arrosarioko Andre Maria ermitara igoko gara (**1**), Atondora iritsi aurretik. Herrira iritsita, Bizkairen mazeletaraino helduko gara (**2**), gailurrera igotzeko.
Ekialdera jaitsita, Otxobiren inguruetara iritsiko gara, Eritzera igaroko gara eta, errepide nagusia gurutzatuta (N-240), ordainpeko autobidearen azpitik igaroko gara eta Santa Kruz muinoraino jarraituko dugu (**3**). Gero, Aristregiko errepidera jaitsi eta Eltxumendiko gailurrera igoko gara (**4**). Jaistea gelditzen da, «iturrien» bidetik, etaparen amaieraraino, Oteitzaraino.

# UDALA BERRIEMAILE
# EL AYUNTAMIENTO INFORMA

## Canal de WhatsApp ciudadano

El Ayuntamiento continúa mejorando sus canales de comunicación con la ciudadanía. A las herramientas de difusión habituales (BIM, página web y redes sociales), se suma ahora el canal de WhatsApp municipal, una forma sencilla y práctica de estar al día de la actualidad de Berrioplano.
Date de alta en el canal de WhatsApp municipal y recibirás información sobre las próximas citas culturales, deportivas, de juventud y actividades programadas por el área de Euskera; avisos del Ayuntamiento; citas para los procesos participativos; plazos de inscripción abiertos; convocatorias de empleo; las fechas del calendario contributivo; y otras novedades que se vayan produciendo en el día a día del Ayuntamiento.
La confidencialidad de todas las personas que se inscriban está garantizada.
**Date de alta en este ENLACE**
**https://whatsapp.com/channel/0029VayDUOm2975EQ22aru1L**
**Date de alta en el QR**







## Herritarrendako WhatsApp kanala

Udala etengabe hobetzen ari da herritarrekiko komunikazio kanalak. Ohiko hedabideez gain (udal informaziorako aldizkaria, webgunea eta sare sozialak), orain udal WhatsApp kanala jarri du abian, Berriobeitiko albisteen berri izateko modu erraz eta praktikoa, alegia.
Har ezazu alta udalaren WhatsApp kanalean eta informazioa jasoko duzu kulturan, kirolean eta gazte arloan diren hitzorduez, Euskara Zerbitzuak antolatutako jarduerez; udal oharrez: parte-hartze prozesuetarako hitzorduez; irekita dauden izenemate epeez; enplegu deialdiez; zerga egutegiko datez; eta udalaren inguruan egunez egun gertatzen diren beste albiste batzuez ere bai.
Bermatua dago izena ematen duten guztien konfidentzialtasuna.
**Hartu alta ESTEKA honetan**
**https://whatsapp.com/channel/0029VayDUOm2975EQ22aru1L**
**Hartu alta QR honetan**

# FLORA DE LA CENDEA
# ZENDEAKO LANDAREAK

## Atxaparra

*Lonicera etrusca*

**Beste izen batzuk:** sasiama (eu), madreselva (es)

Zurezko zurtoinak edo igokariak dituen zuhaixka, beste landare batzuekin korapilatzean, 3 metroko altuera izan dezakeena. Hostoek 3 eta 10 cm arteko luzera eta 1,5 eta 5 cm arteko zabalera izan dezakete, obalatuak izaten dira eta erorkorrak. Binaka ateratzen dira, zurtoinaren bi aldeetan. Pezioloa laburtzen doa, bertatik igotzen doazen neurrian, muturrean batu arte, loreetara iristean. 3 eta 5 cm arteko loreak, ikusgarriak, tutu-formakoak, bi ezpainetan irekiak amaieran. Hasieran gorrixkak dira, eta horitzen joaten dira. Oso lurrintsuak. Multzoka kokatzen dira adarren amaieran, toki komun batean atereaz. Estamineek eta pistiloak erraz gainditzen dute lorearen tutua. Maiatzetik ekainera loratzen dira. Ontzean fruitu gorria edo laranjatua ematen dute. Ez da jangarria.

**Banaketa:** Mediterraneoko herrialdeak, batez ere Europaren mendebaldean.
**Habitata:** basoetako zenbait heskai-mota, nahiago ditu toki argiak eta lurzoru kareharrizkoak eta drainatuak.
**Jokaera:** baso ertzetan eta soilguneetan hazten da, bai eta basoa ordezten duten sasietan ere. Bakarrik bizi bada, zuhaixka zutituaren forma du; hes}kaien artean bizi bada, lianak bezala jokatzen du.
**Erabilerak:** zuhaixka apaingarri moduan, edertasunarengatik eta bere loreen usain gozoarengatik. Garrantzi ekologiko handia du polinizatzaileentzat. Baita herri-medikuntzan ere.
**Non aurkitu:** Berriobeitin, soroen gainetik dauden mendietan sakabanatuta ikus dezakegu, erkametzei egokituko litzaizkiekeen tokietan, zenbaitetan orrearekin batera, berotik, lehortasunetik eta haizetik babestuago dauden lekuak nahiago baditu ere.
**Oharrak:** Nafarroan, bertako beste lau atxapar espezie daude. *Lonicera etrusca* ugariena da gure inguruan.

**Testua eta argazkia:** Gorosti Natur Zientzi Elkartea

## Manitas de dios

*Lonicera etrusca*

**Otros nombres:** madreselva (cast), atxaparra (eusk)



Arbusto de tallos leñosos rectos o trepadores al enredarse con otras plantas, de hasta 3 m. de alto. Hojas de 3 a 10 cm de largo y de 1,5 a 5 cm de ancho, ovaladas y caedizas. Salen en parejas a ambos lados del tallo. Su peciolo se va acortando a medida que suben por él, hasta fusionarse en su punta, al llegar a las flores. Flores de entre 3-5 cm. vistosas, tubulares, abiertas en dos labios al final. De color rojizo al principio, se van volviendo amarillas, muy fragantes. Se sitúan en grupos al final de las ramas saliendo de un punto en común. Sus estambres y pistilo sobrepasan ampliamente el tubo de la flor. Florecen de mayo a junio. Fruto rojo o anaranjado al madurar. No es comestible.

**Distribución:** países del Mediterráneo, sobre todo en Europa Occidental.
**Hábitat:** en setos de varios tipos de bosque, prefiere lugares luminosos y suelos calizos y drenados.
**Comportamiento:** forma parte del borde, los claros del bosque y su matorral de sustitución. Si vive aislada tiene forma de arbusto erecto, pero si vive entre setos se comporta como una liana.
**Usos:** como arbusto ornamental por su belleza y el aroma de sus flores. Gran importancia ecológica para los polinizadores. También en medicina popular.
**Dónde encontrarlo:** en Berrioplano podemos verla dispersa en los montes que sobresalen a los campos de cultivo, en las zonas que corresponderían a los robles carrasqueños, acompañando en ocasiones a la orrea, aunque prefiere lugares más resguardados del calor, la sequedad y el viento.
**Observaciones:** en Navarra hay otras 4 especies de manitas de dios autóctonas. *Lonicera etrusca* es la más abundante en nuestra zona.

**Texto y fotografía:** Sociedad de Ciencias Naturales Gorosti)

# GURE TOKI PUBLIKOAK
# NUESTROS ESPACIOS PÚBLICOS

## Edificio Multiusos de Berrioplano

Fue inaugurado en 2005 con el objetivo de ser un punto de referencia sociocultural para la ciudadanía de la Cendea de Berrioplano. Sus espacios están principalmente destinados al desarrollo de actividades de interés socio-cultural, aunque circunstancialmente se destinan a otro tipo de actividades. Por ejemplo, desde 2019 el consultorio médico ocupa parte de una de las salas de usos múltiples y la mitad del espacio dedicado aseos y los vestuarios de la primera planta. En total, 181 m$^2$ útiles.
El edificio, de 1637,53 m$^2$ de superficie construida, dispone de sótano (donde se ubican el garaje, vestuarios y un almacén), planta baja (donde se encuentra el bar-cafetería y los aseos) y planta más 1 (con dos salas de usos múltiples separadas por un tabique móvil que permite su unión y aseos). En cuanto al aspecto externo, es un edificio que combina material tradicional como ladrillo caravista con otros más sofisticados como el muro de vidrio y el cerramiento de chapa metálica.
Dispone de dos salas. Las personas interesadas en hacer uso de ellas pueden solicitarlo a través de un impreso disponible en la página web municipal.
En la planta baja hay un bar-cafetería (**948 303 718**).



## Berriobeitiko erabilera anitzeko eraikina

2005ean inauguratu zen, Berriobeiti Zendeako herritarrentzat erreferentzia-puntu soziokulturala izateko helburuarekin. Interes soziokulturaleko jarduerak egitera bideratzen dira nagusiki bertako espazioak, nahiz eta, inguruabarren arabera, beste mota bateko jarduerak egiten diren. Adibidez, 2019az geroztik, mediku-kontsultategiak erabilera anitzeko aretoetako baten zati bat eta komunei eta aldagelei eskainitako tokiaren erdia hartzen du aurreneko solairuan. Guztira, 181 m$^2$ erabilgarri.
Eraikinak 1637,53 m$^2$-ko azalera eraikia du, sotoa dauka (garajea, aldagelak eta biltegi bat daude bertan), beheko solairua (taberna-kafetegia eta komunak daude) eta lehen solairua (erabilera anitzeko bi areto ditu, batzeko bidea ematen duen eta mugi daitekeen trenkada batek bereizita, eta komunak). Kanpoko itxurari dagokionez, material tradizionala, adibidez, bistako adreilua, sofistikatuagoekin batzen du, adibidez, beirazko hormarekin eta metalezko xaflarekin egindako itxiturarekin.
Bi areto dauzka. Aretoak erabiltzeko interesa dutenek udal webgunean eskuragarri dagoen eskabidea bete beharko dute.
Beheko solairuan taberna-kafetegia dago (**948 303 718**).











# EUSKARAREN EGUNA / DÍA DEL EUSKERA










